Euskal Antzerkia

Euskal Teatro Txikia Gurea Barrio

T. ALZAGA

BOST URTIAN

BI EKITALDITAN

ANTZERKIA

EUSKALZALEAK
ARGITARAZIA

1929

I

AN
31406

H-70283
F-74241

AFV
31406

- EUSKAL - ANTZERKIA

BOST URTIAN...

BI EKITALDITAN

TORIBIO ALZAGA'K

ERATUTAKO

ANTZERKIA

•U•

EUSKALTZALEAK
ARGITARAZIA

1929 **I**

NAVARRO, DEL TESO Y COMP. ETXEA.-TOLOSA

FUNDACION
MUSEO EL SALVADOR
DONACION

ITZAURREA

Euskal-Antzerkia izena dualarik euskerazko antzerki-komedi sail bat argitaratzeko asmoa degu.

Zuberotarren aspaldiko «*pastoralak*» kendu ezkero gure teatro-lanak berriak ditugu. Ez dute berogeitamar urtetik gora. Onek esan nai du, euskaldunak ez bide zirala atsegindu ez paregin mozorro ta txotxongilloen kirtenkeriaz; ez da naigabetu ta negar egin antzezlariak, ager oi dituzten lagunurkoaren zoritxar ta atsekabeak ikusi ta entzunik. Ez zuten egitazko teatrorik ezagutu erdel antzerkiak gure uri nagusietara iritxi ziraneraño. Soroa ta bere lagun donostiarak antzerki euskaldunari asiera eman zioten. Au dala-ta jaso bitzate gure txalo, eskerron ta agurra.

Geroztik euskal pizkundea etori zan. Onen bultzada, astindu ta erakutsiak izkera zarberritu ta garbitu du erantsita zeukan goldio ta ordoiaz. Idazteko zaletasuna zirikaturik. Donostiko Iztunde-eskola dala-ta, euskal jaiak dirala ta beste zenbait sariketen bidez, antzerki berriak ugari zamar sortzen dijoaz.

Auetatik onentxoenak bildu ta ager araziko ditugu Euskal-Erriko jakintzari eskeiñiaz. Geienak argitaratu gabe bai-daude.

Ontaz gañera, gure eri askotan, lagun-arte, batzoki, eliz-billera ta neska mutillen taldeak gogoz ta poliki euskal antzerkiak antzestutzen diardute. Saritan, lan berriak nundik sortuko ote dituzten dabiltza. Aukera eman nai genieke bere jolasa sendotu, obetu ta ereztu dezaten, erabat ikus-entzunleen txalo ta onginaia irabazirik. Antzerkia irakurgaia izan diteke, bai; lenago da ordea, jarduna, itzbide, ta mintzaira. Onegatik, irakurgaia ez ezik antzezgaia izango da gure komedi sorta.

«**Euskal-Antzerkia**» aldiz beingoa izango da; ta euskaltzaleak ontzat artu ta ez badiote laguntza ukatzen, illean bein edo alik ta maizen azalduko zaigu.

Irritsu ala itun, beti zuzen txukun ta euskaldun. Beñere ez makur zital ta likitsa. Ona emen ikurritza: «Teatro txikia gerea baño».

EUSKALTZALEAK.

TORIBIO ALZAGA

"BOST URTIAN"

Ez du iñork Alzaga jaunak ainbat eskubide Euskal-teatroaren bafutian buru ta zuzendari agertzeko.

Beraz, antzerki-sorta oni aren lan batez asiera emateko beafean gaude.

Bidezkoa da. Omengafia da guretzat.

Soroa'kin asia ta aldi artan Iraola, Ilafamendi, Uranga, Bengoa, Gorostidi ta batez ere Pepe Artola alai ta «Xelebrea» lagun zituela, Toribio Alzaga, gure teatro txoan, eten gabeko lanean ari izan da egundaño.

1888 gafen urtean lenengo antzerkia argitarazi zuen: **«Aterako gera»** *ta orduezkero urtean-urtean, oparo bere luma bizkofetik etofi gaizkigu:* **Txanton Pipefi, «Anboto», «Berñairoren lafiak», «Txiribiri», «Oleskari befia», Amantxi, Osaba, Mutilzafa, «Neskazafa», «Zalaparta», «Tafantan», «Biotz berak», «Andre», «Joxepa Tronpeta»,** *t. a.*

Baita ere, beste izkuntzetatik euskeratu ditu: Shakespear'en **«Macbeth»** *(Ifitza); ta Loti'k idatzi ta Figeroa'k antzerkiratutako* **«Ramuntxo»**, *orain arte gurenda aundiena izan duan euskal antzerkia.*

Au asko ez dalarik beste egileen bizpairu antzerki erabefitu ta osatu ditu: Soroafen **«Bafenen afa»** *ta* **«Ezer ez ta festa».**

Aitaturiko idaz-lanaz gañera, Alzaga'k egiñal galen ta egokiena **«Donostiko Iztunde-Ikastola'n»** *zuzendari ta erakusle bezela bete du.*

Tepsis'en gurdiari uztafituta or dabil Euskal-Efia zearkatzen euskaldun guztien poza ta txalojotze artean. ¡Aida! Ez du akulurik bear.

Antzezkizun edo jaiak eunetik (100) gora eratu ta ospatu ditu bere **«lagundiarekin».** *Geienetan Alzaga jauna aufetik duelarik, ta berak gertakizunak leiaketak ta janzkera ere zuzenduaz.*

Benetan, Alzaga teatro-gizona degu; ta maixu jator onengandik ikasi dute Beorlegi, ta Egilegor otsaundikoak; Irigoyen, Areitiourtena, Zabalbeaz koa Goikoetxea, Eizagife, Lertxundi, Olea, Bikandi, Lizafaga... andereño polit ta lerdenak guziak;... Etxebefia, Mujika, Antzeluz, Urquiza, Agote. Zu bizafeta. Zaldua, Dofegaray (G. B.), Muro, Goikoetxea, Zubimendi, Arizmendi jaun yayoak; ta ez luzateagatik emen ipintzen ez ditudan amaika beste neskatil ta gizaseme bikañik euskeraz ongi mintzatzen ta antzeztutzen ikasi dutenak.

*«**BOST URTIAN**» deritzan antzerkia ez da agian Alzaga'ren onena. Bere argitarutugabeko lanetatik, au autatu degu, ordea, eŕeza, atsegiña ta bizi-bizia dalako; zearo «**altzagataŕa**».*

*Guztia esateko: Alzaga'ren euskera ez da apika sakon, jori ta edeŕenetakoa; jakintsuak, utsegite ta erderakadak arki litzazkioteke. Akatz auek «**Macbeth**» itzulpenari buruz agiriagoan edo daude.*

Bañan euskera garbia ez da naikoa antzerkiak egiteko; ta Alzaga'k gaiari dagokion izkera erabiltzen daki: ariña eŕikoia edo obeto esateko kalekoa, donostiaŕa Bilintx bezela.

*Onelakoa degu «**Bost Urtean**». Ageŕaldiak ondo josi ta amaituak ditu; alkar-izketa gatzdun ta zoŕotza; ta izkirimiri artean zenbait egi mardul... «**Txilbor**» ta lagunak ezin obeto ikusi ta tajutuak daude ta abagune ta egokierak berez sortu ta erabakiak.*

*Guztia ederki begiz jo ta neurtua iñori gogait egin ez dakion. «**Bost Urtean**» lenengoz Donostia'n 1922 gaŕen urtean «**Antzoki zaŕean**» antzeztu zuten ta luzaroan iraun ta bizi dediła euskaldunen poz ta jolaserako.*

L. AYANBE.

BANAKETA

Axun	Txilboŕa
Damasa	Patŕixio
Terex	
Pantxo	Lukax

(Ezkeŕ-eskubiak Antzezlarienak)

Gertaera 1914 ŕik 1922 bitartian

LENENGO EKITALDIA

Etxe aberatz bateko gela-nagusi apaña. Atzean saŕerako ate zabala, ta ezker eskuitan ate bana. Alki luze ta eser-tokiak, mai eta apainketak, polit eta ikusgaŕiak batean eta bestean.

LENENGO AGEŔALDIA

I

Pantxo ta Lukax

(Pantxo, gizaseme aberatz, beŕogei bat uŕtekoa, ta amerikano itxura pitin bat duena da. Lukax, eŕderaz «corredor» deitzen diran oietoko bat da. Bizi ta azkaŕa, lasteŕka itzegiten du, baña oso apal eta begiramen aundiarekin. Geyago atsegindu beaŕarekin «bai jauna, bai», beti ezpañetatik zintzilik daukala dirudi. Ezkuta-zapia igotzeakoan ezkeŕeko atetik iŕteten dira biyak, egon-aldiya amaitu balute bezela).

Pantxo Ostegunian juateko asmua degu.

Lukax Jakiña da; osaba il ezkero lenbailen juan naiko dute.

Pantxo Ez; osaba il zala bi uŕte badira; ta gauzak emendik antolatzeko asmoa genuen. Nere emazteari itxasoa igarotze oŕek alako bilduŕa ematen dio.

Lukax Ez da gutxiyagotako. Santa Klara'ra joatia ez bai da Amerikara joaţia.

Pantxo Ala ere, nai ta nai ez juan biaŕian aŕkitzen gera; bada emendik gauza zuzenik ezin egin degu.

Lukax Ez, noski; noŕbera auŕian ez dagola...

Pantxo Ta, bein araño juan ezkero gauzak ondo erabaki ta antolatu gabe ez nuke etoŕi nai. Oŕengatik, len esan dizudan bezela, lau edo bost uŕte egon biaŕko degula uste det.

Lukax Biaŕkoere badute.

Pantxo Bitaŕtian zuk begiratuko diezu gure etxeai, ta emen uzten ditugun ontasunai. Oŕetarako biaŕ diran agiriak utzi dizkitzut; eta orain arte bezela zuzen ibiliko zerala uste osoa daukat.

Lukax Bai, jauna, bai. Bijua batere kezkik gabe.

Pantxo Gero ere alkaŕen beŕi izango degu.

Lucax Bai, jauna. Nik idatziko diot gertatzen dan guziya.

Pantxo Azkaŕa ta langiĺia izan zera...

Lucax Langiĺia... Biziko bada, biaŕko jauna. Emen ez dago Amerika'ko konturik...

Pantxo ¡A! Amerika'n ere, emen bezela, neke ta izardiyakin dirua egiten da.

Lucax Baña, dirua egiten da beintzat. Emen, beŕiz, txinguŕiya bezela goizetik gabera ari aŕen, doi-doyian bizitzeko lain egin ezkero, pozik. *(Atzeko ate aldera egiñaz).*

Pantxo Zuk bezela, lan egiten danian, lentxiago edo geroxiago agertzen da.

Lucax Ez bezala uste. Ara: egun guziyan, eguna argitzen duenetik, gelditu gabe ibili, eskaĺerak gora, eskaĺerak bera; emengo arpegi txaŕa, ango esakera motza ikusi ta entzunaz; txolarte txiki bateko atsedenik ez detala, ezeŕtarako betik gabe... lenguan Asteasu'n iĺoba bat il zitzaidan, eta araño juateko astirik ez nuen izan... emendik Asteasu'ra utza... bada ala ere xuŕ-xuŕ bizi besterik ezin.

Pantxo Ez dezu oŕengatik laŕitu biaŕ. Oraingo nekiak ekaŕiko dute geroko ongi izatia.

Lucax Obe litzake bada...

BIGAŔEN AGEŔALDIA

II

Lenguak eta Axun

(Une onetan atzeko atera iritxiko dira, ta Axun atian ageŕtzen da. Ogeita amaŕ bat uŕteko emakumia, edeŕa ta apaña. Lukax Axun'ekin aŕkitzian lotsatuta bezela gelditzen da, gauza zuzenik ezin asmatu duela).

Axun (1) ¿Ba al guaz?

Lukax Bai, jauna... bai, bai, andria.

Pantxo Esateko guziyak esan ditugu. Amerika'n geran lau edo bost urtietan, gure ontasunen begirapena bere gain uzten det.

Lukax *(Pantxo'ri)* Bai, andria... bai, bai, jauna.

Axun Ederki. Zu, beti lanian, xintxo, xintxo.

Lukax Xintxo... xintxo, edo...

Axun Bai, bai...

Lukax Beintzat, zera... badaki, zera... sayatu beintzat.

Pantxo Iñoren kalte gabe al guziyan irabaziya etxeratu.

Lukax Iñoren kalte gabe, bai jauna; ori bai. Besteri gaitz apuŕ bat egin baño, txibotik gabe gelditu nayago nuke. Besteren malkuakin txukatutako irabaziyak, gorputz guziya ozkituko lidake.

Axun Zure biotz ona oŕetan azaltzen dezu.

Lukax Bai, andria.

---

(1) Ezkeŕitik eskuira: Lukax, Axun, Pantxo.

Pantxo Esan bezela, agiriak zeoŕekin dituzu, ta orain aŕte bezela, auŕera jaŕaitu.

Lukax Bai, jauna; emen ditut... *(Eskua baŕengo sakelera eramaten du ta paperak luŕera eroŕtzen zaizkio).* ¡A! ¡Azketsi!... *(Paperak jasotzen ditu).*

Axun Ez da ezeŕ *(Eskua luzatuaz).* Aguŕ, bada, Lukax.

Lukax *(Papera Axun'i luzatuaz).* Bai, an... ¡a!... *(Papera eskuz aldatu ta Pantxo'ri luzatzen dio. Gero, kontuan, eroŕtzen da, papera sakelean saŕtu ta eskua, lenbizi Axun'i ta gero Pantxo'ri ematen die).* Aguŕ. Ondo ibili.

Pantxo Ikusi aŕte.

Axun Ondo bizi. *(Lukax, bidian estropos egiñaz atzetik juaten da).*

IRUGAŔEN AGEŔALDIA

III

Pantxo ta Axun

Azkenian Terex

(Pantxo ta Axun une batian Lukax'i begira atzian egongo dira. Gero auŕeratu, ta Axun eseŕtzen da).

Axun Ori da gizasemia, ori.

Pantxo Bai; bizikoya, sayatuba ta langiĺia.

Axun Ez du beste alpŕoja oŕen antz aundirik.

Pantxo ¡Txilboŕa gizarajua!

Axun Etxe ontan saŕtzen, ez dakit nola uzten diyozun.

Pantxo Nere lagunik maitienaren, Juxto'ren anai atsekabea da.

Axun Oŕen zikin eta zabuŕkeriak nazkatu biaŕ du.

Pantxo Ez oŕela aziya.

Axun Oŕek botatzen duen usai naŕdagaŕiarentzako ez degu naiko usai-on etxian.

Pantxo Nere eskola-lagunak ziran, nere kidiak. Ikusi izan bazenitu bi anayak, beren ama gajuak zeñen, apain ageŕtzen zituen.

Axun Ez dauka orain itxura aundirik.

Pantxo Gauza aŕigaŕiya: bi anai, guraso beretik datozenak, erakuspen berak izan dituztenak, beŕdin beŕdin aziak; eta, bata, Juxto, ikusi dan gizasemerik azkaŕena, langiĺiena; Pueŕto-Riko'n nai dubena irabazten duela, maĺik goienekora igoa dago. Bestia, beŕiz, Txilboŕa...

Axun Alpeŕ maltzuŕa, guztiyak lotzatzeko ta nazkatzeko bestetako ez dana.

Pantxo Bere zorigaitzaz kupiturik noizian bein aolku on batzuek ematen dizkiot...

Axun Alpeŕik.
Pantxo Diru pixka bat ere, batzuetan lagatzen diot.
Axun Alpeŕikagokoa oraindik.
Pantxo Guziya, Justo'ren oroipen onagatik egiten det.
Axun Amerika'ra juan biaŕ onetan, gauza batek bakaŕiak poztutzen nau: nere begiyen auŕian ez dala geyago jaŕiko Txilboŕa... *(Terex atzeko atian bat batetan azaltzen da).*
Terex Txilboŕa etoŕi da.
Axun *(Altxa, ta atzeko ate aldera juanaz).* ¡E! ¡Ez det ikusi nai!
Pantxo Baña, emakumia, azkeneko aldiz bada ere...
Axun Ez, ez. *(Atzeko atetik juaten da).*
Pantxo Nere emaztia ere geyegizkoa da... Besterik ez bada, azkeneko aldiya dalako, etzuen alde egin biaŕ... Baña, noŕk buruan saŕtu... *(Terex'ari).* Datoŕela. *(Terex atzeko atetik juaten da).* Txilboŕak galduko du oraintxe etxe ontako laguntza, ta, lenguaz gain, egun goŕiyak ikusi biaŕian aŕkituko da... ta, guziya, bere alpeŕkeri, nagitasun ta lasaikeriagatik. Etzuen oŕela ikusi biaŕ bere burua atsekabe oŕek.

LAUGAŔEN AGEŔALDIA

IV

Pantxo ta Txilboŕa. *Oni Terex'ak ateraño laguntzen dio*

(Txilboŕa ɪzan liteken gizonik aŕlotiena da. Beŕogei bat uŕte izango ditu, baña bere itxura ondatuak zaŕagoko antza ematen dio. Iĺe luze ta bizaŕ nastubak iya aŕpegi guziya estaltzen diote, begi bizi biziak ageŕtzen zaizkala bakaŕik. Txima gañian, begietaraño boina zikin bat saŕtua dauka. Alkandora ttxurik ez dauka, musuzapi zikin alako batek kolkua goŕdetzen dio. Jantzi guzia zikin eta autzia. Oñetan, alpŕaketa zikin zuloz josiak.
Beti asaŕe antzian itzegiten du, ta alde guzietara begiratu txaŕak botiaz.
Atzeko ate aldera, Terex auŕetik duela iritziko da. Oŕduan Terexak alde egingo du, beatzakin suduŕa goŕdiaz.
Ori ikustian, Txilboŕa, lenguaz gain sutan jaŕiko da, Terex juan dan aldera begira, aŕek bezela suduŕari elduaz, eta begiratu zoŕotzak botiaz, iseka egiten dio).

Txilboŕa ¡Uum! ¡Nongo *pŕintzesa* ote aiz, anka baldaŕ ori!
Pantxo Baña, mutil...
Txilboŕa Zimauŕ taŕtian jayo, zimauŕ taŕtian bizi, ta, orain etxe aberatzeko pixontzi gaŕbitzale dagolako, oŕi begira. ¡Uum! *(Beŕiro beatzak suduŕera eramanaz eta Terex juan dan aldera begira).*

Pantxo Atoŕ auŕera. *Txilboŕa auŕeratzen da).* Ire lasaikeriyagatik dek guziya. Gaŕbi ta txukun azalduko baintzake, ez litekek oŕelako isekik egingo.

Txilboŕa Nire, ori bezela jantziko banindute, txukun ta gaŕbi, apain ta dotore azalduko nitzake.

Pantxo Bai; iri ere mantal txuriya jaŕiko diagu. Edeŕki emango ukek, to.

Txilboŕa Mantal txuriya baño, obe nuke nik amaŕ eŕialako txuleta.

Pantxo Ori ere, ire eskubetan daukak ba.

Txilboŕa ¿E? Nere eskubetan balego, laxteŕ litzake nere eztaŕi zuluan baŕena.

Pantxo Lana egintzak.

Txilboŕa ¿Lana?

Pantxo Bai, lana. Lanik egiten ez bada, ontatik. *(Beatzakin abua erakutziaz)* etziok.

Txilboŕa (Pantxo'k bezela beatzak abora eramanaz). ¿Ontatik ez dagola?

Pantxo Ez.

Txilboŕa Eta oŕ, Aereo Klu'n eta beste toki-aberatz askotan, egun guziyan etzanda dauden oyek ¿zeŕ lan egiten dute?

Pantxo Ori dek gauza bat, ık ez dakikana.

Txilboŕa Egiya. Ori da nik ez dakitana. Baña, nik ikusten detana da, ontatik *(Jatea gatik)* edeŕki egiten dutela; ta, ontatik *(Eratea gàtik)* edeŕkiago oraindik.

Pantxo Oyek beren bizibidia izango ditek. Ik, ere, noŕ izan baitzan beste bizikerarik eraman biaŕ ukan.

Txilboŕa ¿Noŕ izan banitz? ¿Ez al naiz ba *noŕ?*

Pantxo Ire anai gizarajua, i auŕera ateratziagatik sayatu dan bezela, ta alpeŕik.

Txilboŕa Nere anaya...

Pantxo Ire anaya, bai; ik biaŕ ez bezelako anaya; Juxto, gizarajuak, nere bitaŕtez, ogei miła pesetaraño auŕeratu nai zizkikan, eta geyago ere bigalduko zikan i zeŕbait lanetan jaŕtzia gatik...

Txilboŕa Ori da: nik lana egitiagatik. ¡Bejondayola! ¡Ni lanian leŕtzia gatik!

Pantxo Zeŕgatik ez. ¿Juxto'k zerekin egin duela dirua uste dek? ¡Lanarekin!

Txilboŕa ¡Zeŕ egin biaŕ zuben! Esan zazu aŕek *sueŕtia* izan duela, ta besterik ez. Nik ere, nere anayaren *sueŕtia* izan banu, Aereo-klun etzanda egongo nitzan egun guziyan.

Pantxo Bai; ik, *sueŕtiakin* edo *sueŕterik* gabe, etzanda egon biaŕko dek.

Txilboŕa Ez da egoten nai duben guziya.

Pantxo Mutil, ez dek ik lotzaren apuŕik ere.

Txilboŕa Ez jauna.

Pantxo Baña...

Txilboŕa Jateko ez badet, zeŕtarako det lotza... ¡Lotza!... ¡A zeŕ gauza lotza!

Pantxo Jateko ez dekala... Ez, noski. Alpeŕ bat aizelako.

Txilboŕa Bai jauna.
Pantxo Ik ez dek lanik egin nai.
Txiboŕa Ez, jauna.
Pantxo ¿E?
Txilboŕa Ez, jauna, ez.
Pantxo ¿Oŕduan, nola bizi nai dek?
Txilboŕa Txoriyak bezela. Txoriyak ere ez dute lanik egiten. Batera ta bestera nai duten aldera ibiĭi. Nai duten tokiyan etzan. Nai dutenian jeiki. Nai dutena egin. ¡Ori gauzaren ederŕtasuna!
Pantxo Bada, txoriyak bezela jan ere egin biaŕko dek... ¡A! Bulebaŕeko balkoi batian, oŕ egoten dek andŕe bat txoriyai ogiya ematen. Ara juan biaŕko dek, ik ere otoŕdu biĭa.
Txilboŕa Ederki eman ere. Usteko dezu egongo naizela an abua zabalduta ¡a! *(Abo zabalik jaŕiaz)*. ogi papuŕen eskian.
Pantxo Txoriyak bezela bizi biaŕ badek...
Txilboŕa Gañera, ez liateke utziko zelaoriak. Edozein gauzengatik an naramate *peŕera'ra*. Ez dakit zenbat aldiz eraman nauten, Bulebaŕeko alkiyetan lo negolako.
Pantxo Ederki egiña.
Txilboŕa ¿Bai, e? Ez dituzte ba bestiak eramaten. Ikusten ditut nik makiñabat ni baño okeŕago dabiltzanak, baña, aberatz itxurakuak badira, utzi nai dutena egiten. Txilboŕa bezelakuak badira beŕiz: *peŕera'ra*.
Pantxo Etzakala ori esan.
Txilboŕa Lengo gabian ere, neska ta gizaseme abeŕatz itxurako batzuek, mozkoŕ mozkoŕ eginda ikaragaŕikko ixkanbiĭa zebilten. ¡Enŕike! oju egiñaz, an zebiltzan, eruen gisa zilipuŕdika, maŕuka esaten zutela: «oŕdikeri ta uŕdekeririk gabe ezin bizi litekela Donostiya».
Pantxo Beŕiketak...
Txilboŕa Baña, neskak zapelaundidunak ziran, gizasemiak beŕiz *kabaĭero* itxurakuak, eta mutuŕez auŕera eroriko ez baziran, serenuak berak lagundu ziyoten koĭxe batera igotzen.
Pantxo Jakingo zitekan zeŕ egiten zuten.
Txilboŕa Zeŕ jakin biaŕ zuten, mozkor ayek, polakŕa ederra zeukaten...
Pantxo Mozkoŕ ayek ez; baña serenuak bai.
Txilboŕa Txilboŕa izan bazan...
Pantxo Beŕdin izango ukan.
Txilboŕa Bai, zera. Ara: Eraneun gabian geŕtatuba da au. Goiz-aldia izango zan, bakaŕ bakaŕik nijoan, iñorekin ezeŕtan saŕtu gabe, ta pake pakian abestutzen aŕi nitzan: «Bete betia zaude»... Ontan, nondik eta nola ez dakitala, ageŕtzen da sereno bat, eta *peŕera'ra* eraman biaŕ nauela, besotik eltzen dit.—Baña, gizona, ¿zeŕgatik eraman biaŕ

nazu, ni iñoŕekin ezeŕtan saŕtzen ez banaiz?—Jendiari lo egiten uzten ez diyozulako.

Pantxo Ederki egiña.

Txilboŕa ¿Iñori kalteik egiten al niyon ba?

Pantxo Bai; lo egiten ez ukan uzten. Serenuak ondo ta ondo esan zikan.

Txilboŕa Oŕduban, neri bulebaŕian lo egiten uzten ez didatenian, ¿zeŕgatik ez dituzte eramaten serenuak *peŕera'ra?*

Pantxo Ura lo egiteko tokiya ez dalako.

Txilboŕa Ura lo-tokiya ez bada, eraman ba lo-tokiren batera: Otel Maria-Kŕistina edo, Kontinental edo... baña ez *peŕera,ra*. ¿Ura al daba, lo-tokiya? Ango lastaidak baño obiak dira Bulebaŕeko alkiyak.

Pantxo Iretzako ayek ere geyegi dituk.

Txilboŕa Bai; ni sonbŕaluakin eta dotore jantziya ez nabilelako.

Pantxo I, alpeŕ-ontzi bat aizelako.

Txilboŕa ¿Ta zeŕ? ¿Alpeŕ-ontziyak ez al degu bizi biaŕ, bestiak bezela? ¿Aberatzak bakaŕik bizi biaŕ aldute emen? ¡A zeŕ aterakeiya! Oŕduban, alpeŕ-ontziyak gerala ta, zakuŕen antzera eraman aŕastaka Amarako etxola aŕtara, ta gaŕbitu an, txaŕangilak bezela.

Pantxo Zeŕbait gaŕbitzia, ondo biaŕekua izango ukek.

Txilboŕa ¡Alpeŕ-ontziyak beste edozein aña ez bagiña bezela!

Pantxo Ire gurasuak i azi induten bezela; etxian, gaztetan, ikusi dekanakin: ik ez ukek oŕela egon biaŕ.

Txilboŕa Ez, noski. Ori diyote guztiyak: nik ez nukela onela egon biaŕ.

Pantxo Iri eman zitekan eskola onarekin...

Txilboŕa Ori esan. Badakizu, eskolan zeŕ letŕa nuben, e? Bada, orain, len baño ere obia egiten detala uste det.

Pantxo Eta, alare, zikiña beste janik ez dekala nayago egon.

Txilboŕa Kayeko poŕtalia badakizu nola beŕitu duten, e? bada aldameneko oŕma zuri zuri zegon, ta ikatz koskoŕ bat aŕtu ta...

Pantxo Zuri zuri irauteko itxura, edeŕa.

Txilboŕa Zaude. Ikatz koskoŕ bat, mutuŕ kamutza gero, aŕtuta, jaŕi nuben (*Idazten balu bezela)* «Uŕdaya»—Ura ikusi zutenian, guztiyak, aŕiturik, abua zabalduta gelditu ziran. Ez dakit nola jan ere egin etzuten.—¿Badakizu noŕ dan *Bakaİau-xaltxa?...*

Pantxo Nik, ez.

Txilboŕa Noŕk ez du ezagutzen *Bakaİau-xaltxa.*

Pantxo Nik, ez diat ezagutzen.

Txilboŕa Bada, *Bakaİau-xaltxak* ikusi zubenian, ala diyo: «Mutiİak, onelako letŕa egiten duben gizonak, ez likek i agon bezela egon biaŕ»... Eta guztiyak abo batetik ari ziran.

Pantxo Ire antza izango zitekan.

Txilboŕa Azkenian, ¿ba aldakizu zeŕ ziyon Bŕakax'ek? Makiñabat ezagutzen ditubela, nai dutena jan, nai dutena eran, eta automobiĺan lasai asko dabiltzanak, nere *letŕen* antzekorik ere, egiten ez dakitenak.

Pantxo ¿Eta, zeŕ?

Txilboŕa Zuk esan dezuna: nik ez nukela onela egon biaŕ.

Pantxo Baña, oŕetarako, ire letŕa edeŕ oŕekin, lana egin biaŕ ukek.

Txilboŕa ¿Lana? Egin dezatela lana aberatzak.

Pantxo Ori dek.

Txilboŕa Nik ezeŕ ez badet, zeŕ galdurik ez badaukat... ¿zeŕtarako lan egin biaŕ det? Zeŕ galdua duenak egin dezala.

Pantxo Oŕduan, oŕma zuri zuri ura zikinduaz jaŕi ukan «Uŕdaya» jan biaŕko dek. Besterik ez. Ez dituk bestiak lanian ariko uŕdaya tajutzen, ik, alpeŕkeriyan agola, mauka mauka jateko.

Txilboŕa Bestiak egin dezatela nai dutena. Nik ez diyot iñori lan egiteko agintzen.

Pantxo Bañan, bestien lanakin bizi nai dek.

Txilboŕa Etzazula uste, nik ludi guziya neretzako lanian aritzerik nai detanik. Ez naiz ni oŕelakua. Nik ez det oŕenbesterañoko zalerik. Nere anayak bigaldu nai zizkidan ogei miĺa pesetak ere ez ditut nai. Geyegi dira. Ni, gutxiyorekin asetzen naizen gizona naiz.

Pantxo Orain bezela baua, aiziarekin ase biaŕko dek.

Txilboŕa Gutxi geyago biaŕ det ba. Nik ez det beste askok bezelako aundikeri zalerik. Nik ez det iñorekin ezeŕtan saŕtu nai. Nik guztiyai pakian utziko diyotet. Ez uste nik iñori kalterik egingo diyotanik. Bai, zera. Bakaŕik, badakizu, sakelak utzak eta baŕenak guŕ guŕ egiten diran garai aŕtan, naiko nuke etoŕtzia bat edo bat, eta esatia: Txilboŕa, to boxt pextako bat.—Eskeŕikasko. Edeŕki ziatoztik.

Pantxo Bai, ta ayek aitutzian...

Txilboŕa Beste boxt pextako bat. Ez det geyago biaŕ. ¿Nik, geyago eskatuko nukela uste dezu? ¡Edeŕki eman ere!

Pantxo Edeŕki eman, etzekiat; baña, iñoŕk emango balikek edeŕki artuko ukela; bai, ori bazekiat.

Txilboŕa ¿Zeŕ da ba, boxt pextako bat?

Pantxo ¿Zeŕ dan? Alpeŕ batek irabazten ez dakiyen diruba.

Txilboŕa ¡Emen dan aña diruekin! Zoko guziyak betiak daude; ta, azkenian erakustokiyetan, eskaparatietan ere, uŕe xaŕak jaŕtzen dituzte, piperŕ potiak balira bezela. An, eguzkitan alpeŕik galtzen eukitzeko oŕdez, zenbatez obeto izango litzake, noizian bein: Txilboŕa, to boxt pextako bat.

Pantxo Iretzat, bai.—Diru ayek, lanaren ikuŕpen bat dituk. Diruak, dirua egiten dik.

Txilboŕa ¿Dirua egiten duela?
Pantxo Bai, ba.
Txilboŕa ¡Zeŕ egin biaŕ du! Diruak ez du egiten eŕdoya besterik.
Pantxo Ire esku zikiñetan ez noski. Baña, bai, lanaren bitaŕtez buruz eratzen danian.
Txilboŕa Buruz edo ankaz, nik ikusten detana da, Donostiyan badagola diruba, Donostiyan badagola gauza; ta gauza dan bitaŕtian bizi gaitezen pake edeŕian, guztiyak alkaŕ aŕtuta.
Pantxo Bai; i, alpeŕkeriyan eta bestiak lanian.
Txilboŕa Kale guziyetan oŕ daude dendak, begiyetatik saŕtu nai digutela ainbeste zeŕ jan, ainbeste zeŕ edan... begiyetatik saŕtzeko oŕdez, saŕtu dezaigutela aboko zulotik eta kito.
Pantxo Egunetik egunera kiŕtenago aŕkitze aut.
Txilboŕa ¿Ez al det ba ondo esaten? *(Aseŕe antzian eta geroago eta biztago).*
Pantxo Ik, ondo; ez esan eta ez egin.
Txilboŕa Bai; zu beti, aberatzen alde.
Pantxo Ni, beti, egiyaren alde.
Txilboŕa Kabaĺero itxuran azalduko banitz, etzenuke oŕelakorik esango.
Pantxo Kabaĺero itxuran, eta alpŕoja itxuran, beti, gauza bat esango diat, eta gauza ori dek...

BOSTGAŔEN AGEŔALDIA

V

Lenguak eta Axun

(Axun atzeko atian ageŕtzen da).

Axun Pantxo: Damasa, gure neskame izandua, bere senaŕarekin otoŕi da:
Pantxo ¿Ta, onera, ekaŕi biaŕ aldituzu?
Axun Noski.
Pantxo Oraintxe... (1) *(Pixka bat oldoztu ondoren, Txilboŕa'ri).* Saŕtu adi emen *(Ezkeŕeko atian)* ta itxogan zak.
Txilboŕa ¿Emen saŕtu biaŕ al da?
Pantxo Bai.
Txilboŕa Ori ere egingo degu bada. Oŕtan ez dezu zeŕ esanik izango.
Pantxo Eta egon adi, nik deitu aŕte.
Txilboŕa Nai dezun aŕte.
Pantxo Bazekiat, lanerako pŕesik ez dekala...

(1) Ezkeŕetik eskuira: Txilboŕa, Pantxo, Axun.

Txilboŕa ¿Lanerako? Ez ta bazkaltzeko ere.
Pantxo Lanerako ez duenak, bazkaltzeko ez izatia, ez dek aŕitzeko gauza. *(Txilboŕa ezkeŕeko atetik saŕtzen da, ta Pantxo'k atia itxitzen du).*
Axun Zaŕpail oŕek ez ote dizu oŕ zeŕbait aŕtuko.
Pantxo ¿Oŕek aŕtu? Alpeŕkeriyaz ezta ukuitu ere.
Axun Bada, esan bezela, Damasa, gure neskame izandua etoŕi da...
Pantxo Bai; baña, zaude pixka batian berakin.
Axun ¿Etoŕiko zera oŕdia?
Pantxo Berialaxe emen natzaizute.
Axun Lasteŕ ibiĺi bada.
Pantxo Bai, bai *(Eskuiko atetik juaten da).*

SEIGAŔEN AGEŔALDIA

VI

Axun, Damasa ta Patŕixio. *Abei Terex'ek ateraño laguntzen diye.*

Axun *(Atzeko atetik deika)* ¡Aureŕa, aureŕa! *(Damasa ta Patŕixio atzeko atian azaltzen dira. Terex'ek ateraño lagunduko diye, ta gero alde egingo du. Damasa ta Patŕixio senaŕ emaztiak dira. Bata emakume goŕputz aundikua, bestia beŕiz tataŕa. Damasa, Axun'en etxian neskame izana da, ta oraindik ala balego bezela itzegiten du, beti «Etxekoandria» abotik zintzilik äuela. Patŕixio, diru gutxiko amerikano bat da. Bere Damasa'rekin txoraturik dago, ta onek agintzen diyo auŕ bat balu bezela).*
Damasa (1) ¡Etxekoandŕia!
Axun ¿Nola zerate, nola?
Damasa Oso edeŕki, etxekoandria, oso edeŕki.
Axun ¿Eta zure senaŕa?
Damasa Patŕixio.
Axun *(Patŕixio'ri esku emanaz)* Patŕixio, bai. Ez nitzan gogoratzen.
Patŕixio Ondo, ta beoŕi?
Axun Ongi; eskeŕikasko.
Patŕixio ¿Ta beoŕen senaŕa?
Damasa *(Patŕixio'ri, zuzenduaz).* Senaŕ jauna.
Patŕixio ¿Senaŕ jauna?
Axun Txit ondo; laxteŕ etoŕiko da.
Patŕixio ¿Eta beoŕen...?
Damasa *(Patŕixio'ri zuzenduaz).* Ez da beste iñoŕ etxian.
Patŕixio ¿Etxeko guztiyak ondo beaz?

---

(1) Ezkeŕetik eskuira: Patŕixio, Damasa, Axun.

Axun Bai, Jaungoikori eskeŕak. Atozte auŕera, atozte. *(Auŕeratxen dira, ta Axun alki-luzian esertzen da).* Eseri zaitezte. *(Patŕixio alki-luze aldera eseŕtzera dijua ta Damasa'k galerazten dio).*

Damasa Ez; oŕ, ez; eseri zaite emen *(Beste alki bat ematen dio, ta Damasa bere onduan eseŕtzen da).*

Axun *(Alki-luzia gatik).* ¿Ez al dezute emen eseri nai?

Damasa Eskeŕikasko, etxekoandŕia; emen oso edeŕki gaude ¿Ez da ala, Patŕixio?

Patŕixio Oso edeŕki.

Axun Nai dezuten bezela.

Damasa ¿Badijuaz beaz, Amerika'ra?

Axun Bai; ostegunian juateko asmua degu.

Damasa Ondo ibiĺi bada, etxekoandŕia; ondo ibiĺi... ta lenbailen etoŕi.

Axun Lau edo bost uŕte egon biarko degula uste det.

Damasa A ¡Amerika! Zenbat gauza esaten dizkidan nere Patŕixio'k.

Axun Izan ere, amerikanua dezu senaŕa.

Damasa Bai, andŕia: Laxtuŕ'ko amerikanua.

Axun ¿Xexenak bezela?

Patŕixio Laxtuŕ'en jayo, ta gaztetan Amerika'ra juana.

Damasa Baña, au, Amerika'n txantxetan izan omen zan.

Axun ¿Txantxetan?

Patŕixio ¡Panpetan!

Damasa A; bai. Izen ori ezin buruan saŕtu zait.

Axun Mendiyan, beaz...

Patŕixio Bai, andŕia. Bañan ayek mendi ikaragaŕiyak...

Damasa Bai, noski.

Patŕixio Ango abere ikaragaŕiyak.

Damasa Bai, noski.

Axun Ta, ango irabazi...

Patŕixio Ikaragaŕiyak.

Damasa Bai, noski.

Axun Beaz, ¿diru moŕdoxka edeŕa ekaŕiko zenuen?

Damasa Ba... Ez noski.

Patŕixio Ez, andŕia. Osaba baten gana juan nitzan, eta ura il zanian utzi zidan apuŕarekin onera biuŕtu nitzan.

Axun Ezagutzen ditut nik beintzak, Panpetan, oso aberatzak, altsuak, indaŕ aundikuak.

Damasa Au, Laxtuŕ'kua izan oŕdia. Intentziyua, bai, baña indaŕ gutxikua.

Patŕixio Damasa'k osatzen ditu nere indaŕ aulak. Onen eskuetan bost kuaŕto, beste askoenetan bost miĺa eŕial baño geyago dira.

Damasa Onen esatekuak, etxekoandŕia.

Patŕixio Ez dakit zeŕ egiten diyon dirubari, bera bezela luzatzeko.
Damasa Zeŕ gauzak, e...
Patŕixio Ezkongaitan, neroni bakaŕa bizitzeko, ezin iritxirik bezela ibiltzen nitzan; eta, orain, biyak, nik beñere ezagutu ez detan lasaitusunarekin bizi gera.
Damasa Bañan, Patŕixio...
Patŕixio Orain bezin ondo, ez naiz ni beñere bizitu.
Axun Obe, obe. Atsegin det, jakitia.
Patŕixio Gero, mokaru goxo batzubek jaŕtzen ditu...
Damasa Etzazula esan...
Patŕixio Onen tŕebetasuna jakiyari emateko, emengo tipula punta, ango oliyo tantua, besteko baratxuri alia, uŕengo poŕupeŕejil puxka...
Damasa Bañan, Patŕixio...
Axun ¿Beaz, zuri, etzaizu ezkonduba damutu?
Patŕixio ¡Ez ta damutuko ere!
Damasa ¿Aitu al du, etxekoandŕia?
Patŕixio Iru lagun ibiltzen ziran alkaŕekin...
Damasa Badaki, beon lengusuenekua ta...
Axun Bai, bai.
Patŕixio Rupeŕta, Noŕbeŕta, ta Damasa. Ta nere buruari galdetzen niyon: ¿norekin ezkonduko aiz? ¿Rupeŕta? ¿Noŕbeŕta? ¿Damasa? Ta baŕenak erantzuten zidan: ¡Damasa!
Damasa Zeŕ gauzak, etxekoandŕia...
Axun Beaz, zuk, iruren aŕtian aukeratu zenuen.
Patŕixio Bai, andŕia: Rupeŕta, Noŕbeŕta, ta Damasa. Baña, Damasa'rekin gelditu.
Damasa Exkaxenarekin.
Axun Bere gogokua izan ezkero...
Patŕixio Bai, bai: Damasa, Damasa.

ZAZPIGAŔEN AGEŔALDIA

VII

Lenguak eta Pantxo

(Pantxo eskuitik saŕtzen da).

Pantxo ¿Emen zerate beaz?
Damasa Nagusiya... *(Bera altxatzen da, ta Patŕixio'ri).* Altxa zaite. *(Patŕixio altxatzen da).*

Pantxo ¿Nola zerate?
Damasa Oso ederki, nagusiya.
Pantxo ¿Ta zure senara...?
Damasa Patrixio.
Pantxo (1) *(Patrixio'ri esku emanaz).* ¿Zer diozu?
Patrixio Ondo; ta beori?
Pantxo Ondo.
Patrixio ¿Ta emaztia?
Pantxo Aurian daukazu. *(Damasa, Axun'i begira jartzen da, Patrixio ikusten ez duela.*
Patrixio Izan ere...
Pantxo Eseri zaite.
Patrixio Eskerikasko. *(Patrixio esertzen da).*
Axun Ikusten detanez, oso zoriontsuak zerate.
Damasa Ezin geyago, etxekoandria.
Pantxo Zu bezelako mirabe on batek, bere zintzotasunarekin, etxe bat zorionez betetzen du.
Damasa Orenbesteraño, ez, nagusiya. *(Au esatian pixka bat biurtzen da, ta Patrixio ikusten du. Pantxo'k une onetan ez du ikusten). (Patrixio'ri).* Altxa, altxa. *(Patrixio altxatzen da).*
Axun Etxe bateko zoriona, geyenetan, emakumearen gain dago.
Pantxo Bai, ba... *(Patrixio ikusten du).* Eseri. *(Patrixio esertzen da).*
Damasa Gizonak ere, lagundu biar du. *(Patrixio ikusten du).* Altxa. *(Patrixio altxatzen da).*
Axun Noski. Baña, emakumia nor dan tokiyan...
Pantxo Gizonaren utsuneak betetzen ditu. *(Patrixio ikusten du).* Eseri *(Patrixio esertzen da).*
Damasa Orain arte beintzat, ondo guaz: Jainkoari eskerak, ezin obeto juan. *(Patrixio ikusten du).* Altxa. *(Patrixio altxatzen da).*
Axun Aurera ere, orela iraun dezazutela.
Pantxo Iraungo dute. *(Patrixio ikusten du).* Eseri *(Patrixio esertzen da).*
Damasa Jaungoikuak nai dezala. *(Patrixio ikusten du).* Altxa. *(Patrixio altxatzen da).*
Pantxo Bi urte badaramazkite beintzat eta..
Axun Bi, ez: iru.
Pantxo ¿Bi ez dira, bada?
Damasa Iru, nagusiya.
Axun Iru.
Pantxo *(Patrixio'ri).* ¡A! Beaz, ¿iru, e?

---

(1) Ezkerretik eskuira: Pantxo, Patrixio, Damasa, Axun.

Patŕixio (Lenbizi eserŕtzera egiten du, Pantxo'k eserŕtzeko aginduko diyon ustian). ¿Nola?
Pantxo Iru...
Damasa Iru, bai, iru.
Patŕixio ¡A! Bai, jauna: Ruperŕta, Norberŕta, Damasa.
Damasa Ez, gizona: iru urŕte dala ezkondu giñala.
Patŕixio A, bai! Xan Pruontxiotan, iru urŕte.
Pantxo Bañan, eseri zaitezte. *(Eseri edo ez, Patŕixio'k Damasa'ri begiratzen dio). (Damasa'ri).* Zu, ere, eseri zaite.
Damasa Ai, ez, nagusiya. Eskerŕikasko. Juan egin biarŕ degu.
Pantxo Gero ere, juango zerate.
Axun ¿Norako dezute orŕelako larŕiya?
Damasa Beok zerŕegin asko izango dute ta...
Axun Ez, emakumia.
Damasa Bai, etxekoandŕia, bai. Gu, azken-aguŕa egitera bakarŕik etorŕi gera, ta ez diotegu alperŕikako lanik eman nai. Guazen, Patŕixio.
Axun *(Altxatuaz).* Nai ez badezute bada, ezin gogorŕian geldi - araziko zaituztegu. *(Labak atzeko ate aldera egiten dute).*
Damasa Ondo ibīli ba, etxekoandŕia; ondo ibīli, nagusiya.
Patŕixio Bidalde on bat egin.
Pantxo Eskerŕikasko.
Damasa Ta, Jaungoikoagatik, kontuz ibīli itxasuan.
Pantxo Bai, ez degu txorakeririk egingo.
Damasa Kanpoko itxaso ori, ain aserŕia, ain arŕua omen da...
Pantxo Zerŕ nai dezu, oraindik ezkongai dago ta.
Damasa ¿Ezkongayen arŕokeriyak ditu beaz?
Pantxo Bai, ba.
Axun Zuek, ere, ondo ondo egon.
Damasa Orain arŕte bezela bagera, ez gera gaizki izango. ¿Ez da ala, Patŕixio?
Patŕixio Ez, noski.
Axun *(Ixilik Damasa'ri).* Laxturŕkuak, kontuzkuak dirala, aitu izan det, eta zuk ere, kontuz ibīli biarŕko dezu.
Damasa ¿Patŕixio'rekin? Ez, etxekoandŕia; oso mantxua da ta...
Axun Obe, obe. *(Atzeko atian guztiak ojuka alde egin arŕte).*
Pantxo Ondo bizi bada.
Patŕixio Ikusi arŕte.
Axun Ondo, ondo egon.
Damasa Ondo ibīli.
Guztiak ¡Agur! *(Patŕixio ta Damasa atzetik juaten dira).*

ZOŔTZIGAŔEN AGEŔALDIA

VIII

Axun, Pantxo ta Txilboŕa

Pantxo Beste kaiku oŕekin ere, amaitu biaŕ degu ba oraintxe.
Axun *(Alki-luzian eseriaz).* Gizonaren nazka...
Pantxo *(Ezkeŕeko atia iriki ta deituaz).* Atoŕ onera.
Txilboŕa *(Ezkeŕeko atetik saŕtuaz).* ¿Nere txanda al da orain?
Pantxo Bai; baña, naikua itzegin diagu, ta etzeukau geyago ezeŕ esan biaŕik.
Txilboŕa ¿Zeŕ da? ¿Txixtua ere garestitu egin al da?
Pantxo Bai: izugaŕi. *(Zakeletik duro bat atera, ta Txilboŕa'ri emanaz).* Txilboŕa: to boxt pextako bat.
Txilboŕa *(Durua aŕlu ta gordiaz).* Eskeŕikasko. Edeŕki datoz. *(Oso pozik).* ¡Ikusten, gauzak zeŕ edeŕki, ta zein eŕex antolatzen diran!
Pantxo Bai; baña ostegunian Amerika'ra niak, eta uŕengo boxt pextak noŕk emango dizkikan somatzen asi inteke.
Txilboŕa ¡Amerika'ra juan biaŕ dezula! ¡Ta patxara oŕetan esaten diazu!
Pantxo ¿Zeŕ patxaretan nai dek ba esatia?
Txilboŕa ¡Amerika'ra zuazela! ¡Eŕezago esan dezu! ¡Ni, banua!... ¡Oŕ konpon!... ¡Gosiak jango al zaituzte!...
Axun *(Altxiaz).* ¿Juateko, zure baimenaren biaŕa ote degu bada?
Pantxo Iri begira egongo gaituk, nai badek.
Txilboŕa ¡Ta ondo iduritzen zaizu, gizona onela uztia!
Pantxo Ez diat ezeŕ kendu. Ire letŕa edeŕ ori ere, eoŕekin gelditzen zaik.
Txilboŕa Letŕa... Jango dezu letŕa...
Pantxo Lan egin zak.
Txilboŕa Ori da: leŕtu adi oŕ.
Pantxo Mutil: zazpi azal badituk kopetian.
Axun Eta zikiñak, zazpiyak.
Txilboŕa Gosiak ilda ikusi nai nazute, baña ez nazute ikusiko.
Axun Guk ez degu zurekin zeŕ ikusirik.
Txilboŕa Eŕiyan zeŕ jana dan bitaŕtian, nik, jateko eskubidia neronekin daukat.
Pantxo ¿Eta zeŕ?
Txilboŕa Bestiak, ase ta gañezko gelditzen zayotena; ni jan gabe nagon bitaŕtian, neria da. Nik dirurik ez badet, bestiak geyegi dutena, neria da. Diru auŕeratuak deitzen diran oyek, batere ez degunenak dira. Ni ludi ontara etoŕi nitzan, ludiko ontasunetan nere zatia iza-

teko; ez, beren aberastasunak ezin erakutsirik, gau ta egun kasino kuŕsalian dabiltzan oyei begira iŕikitzen egoteko. *(Atzeko ate aldera egiten du).*

Pantxo I etoŕi itzan ludi ontara, astokeri mota guziak esan eta egiteko.

Txilboŕa Ta, nik, nere eskubidiari eutziko diyot. Onian ez bada, txaŕian.

Pantxo Mingañarekin, bai.

Txilboŕa Ta dan tokitik aŕtuko det.

Pantxo Ik ez dek ori egingo.

Txilboŕa (Atzeko atetik). ¿Nola bizi biaŕ det ba?

Pantxo Jaungoikoaren jakintza neuŕigabeak erabakia zeukak:

«Ire kopeteko izardiyarekin».

EZKUTA - ZAPIA JEISTEN DA

Lenengo Ekitaldiaren Amaia

BIGAŔEN EKITALDIA

Iruditegia lenengo ekitaldian bezela. Lenengo ekitalditik bigaŕenera bost urte igaro dira.

LENENGO AGEŔALDIA

I

Pantxo ta Lukax

(Lukax oso aldatua dago. Aberastu da, ta aŕpegiyan ezagun du bere ezin eukiya. Urezko betaurekoak daukazki ta janlziya oso apaña. Lengo apaltasunaren ordez azaltzen du. Eskutazapia igotzeakoan ezkereko atetik irteten dira biyak, egonaldiya amaitu balute bezela).

Pantxo Ostegunian etori giñan.

Lukax Bart-arats arte ez nuen jakin. Beorek gaztigatu zidan arte.

Pantxo Bai; atzo araizaldian mandatua bigaldu nizun.

Lukax Ikusi duen bezela, gure artu-emanak garbitzera, beriala etori naiz.

Pantxo Eta biar bezela garbitu ere. Oretan nere gogoa bete dezu.

Lukax Eskerikasko.

Pantxo Ikusten detanez. Amerika'n izan geran bost urte abetan, zerori ere etzaizu gaizki juan.

Lukax Ez, jauna, ez. Amerika'k orain ez daude an. Emen daude, emen, egiyazko Amerika'k. Dirua egin nai duenak ez du iñora juan biarik. Emen bezelako ereztasunik ez du iñon arkituko.

Pantxo Etzenduben len ori esaten.

Lukax ¡A! Baña, bost urtian, ludiak egin du aldaketa bat, len bost gizalditan egiten ez zuena.

Pantxo ¿Bizibide berriren bat arkitu dezu beaz?

Lukax Ez ta batere. Zara beritu baizik.

Pantxo ¿Nola, ordia?

Lukax Ara: orain denbora gutxi arte, etxe-sariak, erentak, urtiak juan eta urtiak etori, beti berian egoten ziran; nagusiyak diru bera jasotzen zuten, eta, guk, bitartekuak, uzkeri bat besterik izaten ez genuen. Gaur ez dago orelako konturik. ¿Sei duroko erentan dago? Amasei jari. ¿Zortzi ditu? Ogei ta bostera igo. ¿Amar dauzka? Ogeitamarera edo berogeira jaso azi.—Tartekuak asmatu deguna da au.

Pantxo Asmaketa edeŕa.

Lukax Onela, nagusiak askoz geyago ateratzen dute; guk beŕiz, nai deguna ¡ta guztiyak ondo!

Pantxo Guztiyak, ez. Oŕdaindu biaŕ dutenak ez dute oŕelakorik esango.

Lukax Bai; etxe zuluetan oju ta kaŕaxi, antsi ta negaŕak ugari izaten dira. Baña, iŕten bedi kanpora, ta, beñere baño diru geyago ondatzen dala ikusiko du; len baño apainketa garestiago ta ikusgaŕiagoak azaltzen dirala; iñoiz baño alaitasun eta jostatu nai geyago dala. Nik, alderdi guzietan algara besterik ez det entzuten. *(Atzeko ate aldera egiñaz).*

Pantxo Zokuetan malkuak ere, ixil asko ixuriko dira.

Lukax Etzayo zokoari begiratu biaŕ.—Gero, etxe—sari igotze onekin batian, asi da etxe oso ta etxe—bizitza utzen salketa, ta, oŕ dago, oŕ, diru egitia. Utzen oŕdeko etxiak egiten dute orain diruba, autza bezela; ta goizian erosi ta aŕatzian saldu, eskutik eskura gelditu gabe ibili, erokeri bat irabazten da. Nik, bost egunian, etxe baten sal-erosiakin, batere gezuŕik esan gabe, sei miła duro gaŕbi gaŕbiak zakelian saŕtu ditut.

Pantxo Bai, baña oŕela etxesariak, eŕentak, lenguaz gain igoko dira, ta jendiak ezin oŕdainduba etoŕiko da.

Lukax ¡A! Ezin dubena, kanpora. Bat bigaldu oŕduko badatoz amaŕ etxe eske, ta edozein eŕentetan. Nai dana eskatu aŕen ez diote ajolik.

Pantxo Ez diote ajolik, ez. Esantzazu obeto, beste alderdirik ez dutela. Bizi biaŕ badute, zuek oŕetara biaŕtzen dituzutela.

Lukax Dan bezela dala, oŕela egiten da diruba. Len bezela. egun aŕgitu oŕduko asi, eskaĺera gora eskaĺera bera, bateko aŕpegi txaŕa, besteko esakera motza ikusi ta entzunaz, txinguŕiya bezela ibiĺiaz, ¿ezeŕ egiten dala, uste du? Bai, zera: ori, gauza zaŕa da. Gauŕko egunian biaŕ dana da: begiya zoŕotz, azala latz eta biyotza lasai.

Pantxo Oŕek, ezin biziya ekaŕi lezake oŕdia...

Lukax ¿Noiz, orain bezin ondo, bizi izan da jendia? ¿Beñere ezagutu al da orain bezelako diru ezin goŕdia? Orain aña guŕtarin, auto. Orain aña antzoki. Orain aña jai. Orain bezelako jate ta edate garestiak? ¡Orain bezela, ez da bañere ludia aŕkitu!

Pantxo Baliteke...

Lukax Neroni ere, lenago, emendik Asteasu'ra juateko... emendik Asteasu' ra, utza... ezin iritxirik ibiltzen nitzan. Orain... datoŕen astelenian Alemani'ra nua. An egun on batzuek igarotzera !Au da ondo bizitzia!

Pantxo Ez dute guztiyak ori esango.

BIGAŔEN AGEŔALDIA

II

Lenguak eta Axun

(Une onetan atzeko atera iritxiko dira, ta Axun atian ageŕtzen da. Lukax'ek ausaŕki, batere lotzik gabe, itzegiten du).

Axun (1) ¿Ba al guaz?
Lukax Bai, andŕia. Gauŕko egitekuak amaitu ditugu.
Axun Edeŕki.
Pantxo Amerika'n izan geran bost uŕtietan, Lukax, oso dirutu zaigu.
Axun Ezagun du, bai.
Lukax Ezin ukatu. Uŕte abek, emen, diru egitekuak dira·
Axun Eta, zuk, gogotik egin dezu...
Lukax Beoŕen senaŕari ere idatzi nion, nai ote zuen etxe-sariak igotzia, saleroste batzuek egitia; dirua eŕuz ateratzen zala, baña...
Pantxo Ez det nai izandu. Besteren malkuakin txukatutako irabaziyak, goŕputz guziya ozkituko lidake.
Lukax Nik ere ori esaten nuen. Baña ez dago orain lengo konturik.
Pantxo Orain ere, len bezela, batzuek goyen, eta bestiak bian egongo dira.
Lukax Noski...
Pantxo Ta, onenian, orain, goikuak, len baño geyago bian daudenak zanpatuko dituzte.
Axun Bekuak kaŕasi egingo dute oŕdia.
Lukax Bekoen kaŕaxiai etzaio aŕetik jaŕi biaŕ.
Axun Kŕistau bidia ez dala ori, iruditzen zait.
Lukax Bai, oŕdia, diru egiteko bidia.
Pantxo Ori... baliteke.
Lukax Besterik agintzen ez badute, banua... *(Axun'i ta Pantxo'ri esku emanaz).*
Axun Aguŕ bada, Lukax.
Lukax Uŕen aŕte.
Pantxo Nai dezun aŕte. *(Lukax atzetik juaten da.*

---

(1) Ezkefetik eskuira: Lukax, Axun, Pantxo.

IRUGAŕEN AGEŕALDIA

III

Pantxo ta Axun

Azkenian Terex

(Pantxo ta Axun une batian Lukax'i begira egongo dira. Gero, auŕeratu, ta Axun eseŕtzen da).

Axun Ez dirudi oŕek lengua.
Pantxo Lau kuaŕto egin dituelako, oŕa gizona puztutu.
Axun Sitsa baño aŕuago dago.
Pantxo Alako gizaseme atsegiña zana, oŕa diruak oso laŕdaskatu. Oŕelako aldaketa egin litekenik ere...
Axun Etzuen askorik egingo beste alpŕoja aŕek.
Pantxo ¡Txilboŕa gizarajua!
Axun Ura lenguan egongo da.
Pantxo ¡Zeŕ egon biaŕ du! Ura onezkero gosiak eta zikiñak jango zuten. Aŕek zeraman bizikerarekin, noia nai dezu bost uŕte irautia.
Axun Ez dakit aŕek iraun duen edo ez; bañan bere usai zikin naŕdagaria, guk ezin eraman genduela, bai.
Pantxo Ez dezu bada orain, eramaten lanik izango.
Axun Etxeko usai-on guziak etziran aski.
Pantxo Zeŕ nai dezu, alakoxia zan da...
Axun Etxe ontan saŕtzen, ez dakit nola uzten zeniyon.
Pantxo Badakizu zeŕgatik zan.
Auxn Aren zikin eta zabuŕkeriak...
Pantxo Oŕetxek, azkena, biaŕ baño len ekaŕiko zion.
Axun Ezin esan.
Pantxo Bere oŕdez, Juxto gizarajua, bai, an egongo da orain ere, Puerto-Riko'n, dirua galanki irabazten.
Axun Ez du izango emengo anayaren antz aundirik.
Pantxo Bere beŕirik ez izatiak, oso aŕiturik nauka. Lenbiziko bi uŕtietan idazten zidan; baña azkeneko iru abetan ez det bere zantzurik.
Axun Toki batian egon gera bada, azkeneko egun abek aŕte.
Pantxo Zeŕ izan liteken ezin asmatu det.
Axun Dana dala, ni poztutzen naubena da: nere begiyen auŕian ez dala geyago jaŕiko Txilboŕa... *(Terex atzeko atian bat batetan azaltzen da).*
Terex Txilboŕa etoŕi da.

Axun (*Altxa ta atzeko ate aldera juanaz*). ¡E! ¡Ez det ikusi nai!
Pantxo Baña, emakumia, lenbiziko aldiz bada ere...
Axun Ez, ez. *(Atzeko atetik juaten da).*
Pantxo Nere emaztia ere geyegizkoa da... Besterik ez bada, lenbiziko aldiya dalako etzuen alde egin biaŕ... Baña, noŕk buruan saŕtu... *(Terex'ari).* Datoŕela *(Terex atzeko atetik juaten da).* Okeŕ negon. Ikusten danez, aŕlote ori bizi da oraindik. Katubak baño bizi geyago izaten dituzte zaŕpazaŕ oyek. Eta, oitu bezela, nere sakelaren usayian etoŕiko da. Ez daukat ba nik gogo aundirik *bost pextakuak* ematen asitzeko, kiŕten oŕek bere betiko alpeŕkeri, nagitasun eta lasaikeriyan jaŕaitu dezan. Noŕ izan bazan, etzuen oŕela ikusi biaŕ bere burua atsekabe oŕek.

LAUGAŔEN AGEŔALDIA

IV

Pantxo ta Txilboŕa. *Oni Terex'ak ateraño laguntzen dio*

(Txilboŕa lengua bera da, lengo aŕpegi bera, lengo begiratu iĺun bera, ta, len bezela beti asaŕe antzian itzegiten duela, alde guzietara begiratu txaŧak botiaz. Jantzia ez du lengua. Soñeko onak, sonbŕalua, oñetako aundi samaŕak baña garbiak, eta eskuetan esku-makiĺa. Atzeko ate aldera, Terex auŕetik duela iritxiko da. Oŕduan Terex'ak alde egingo du, Txilboŕa'ren jantzi beŕiak aŕitzen dutelako keñua egiñaz. Ori ikustian, Txilboŕa, lenguaz gain sutan jaŕiko da, ta Terex juan dan aldera begira, aŕen keñu berak egiñaz, eta begiratu zoŕotzak botiaz, iseka egiten dio).

Txilboŕa ¡Eeee! Ez al den orain egin biaŕ ¡Uum! *(Beatzakin suduŕari elduaz).*
Pantxo Baña, mutil...
Txilboŕa Antxeta oŕi begira; marama jazten dutelako, bestiai iseka ari biaŕ. Egin zan beŕiz ere ¡Eeee! *(Terex juan dan aldera begira, ta lengo keñua egiñaz).*
Pantxo Atoŕ auŕera. *(Txilboŕa auŕeratzen da).* Oso aldatua aŕkitze aut. Besterik diruik. ¿Zer da?
Txilboŕa ¿Zeŕ dan? Nere anayaren txatxukeri bat.
Pantxo Izan ere, Juxto'tzaz galdetu nai nikan. ¿Ezeŕ ba aldakik? Iru uŕte izango dek aren beŕirik ez detala.
Txilboŕa Ez, noski. ¿Nola izango dezu ba? Beste luditik bigaltzen ez badizu beintzat.
Pantxo ¿Zeŕ esan dek?
Txilboŕa Juxto il zan.
Pantxo ¡Il!

Txilboŕa Oŕa bizi biaŕak zeŕ ekaŕtzen duen. Azkenian ere il.
Pantxo ¡Nere lagun zaŕ gizarajua! (Oŕa, zuzen bizi zan ura il; ta, au beŕiz, gose ta zikin taŕtian iraun alaere) ¡Il ukan beaz!
Txilboŕa Iltzeko obia zan, txatxu ura.
Pantxo A zeŕ eŕespontsua eskeintzen diyokan.
Txilboŕa Aŕek biaŕ bezelakua.
Pantxo Etzakala oŕelako astokeririk esan.
Txilboŕa Bazenekizu zeŕ egin didan...
Pantxo Aŕek, gauza txaŕik ezin egin.
Txilboŕa ¿Ez, e? Ez dakizu ondo...
Pantxo ¿Zeŕ egin dik, bada?
Txilboŕa ¿Zeŕ egin didan? ¡Larogei miĪa duro utzi dizkit, txatxu aŕek!
Pantxo ¡Juxto gizarajua! ¡Zuben guziya!
Txilboŕa ¡Larogei miĪa duro!
Pantxo Ik biaŕ ez bezelako anaya.
Txilboŕa Bai: nik biaŕ ez bezelako anaya... Nik biaŕ nuben anai bat, taŕtian taŕtian boxt pextako bat emango zidana; ez, batetan, burutik bera larogei miĪa duro botako zizkidana... ¡Eŕexago ilda ura, ni biziko naizen baño!
Pantxo Larogei miĪa duroekin bizi intekela uste diat.
Txilboŕa Larogei miĪa duro oyekin, ez naiz ni bizi. Ni bezela, ezeŕtzaz gogoratu gabe, ezeren aŕetik izan gabe, ezeŕtan oldoztu gabe; txoriyak bezela, batera ta bestera, nai nuen aldera ibiĪi, nai nuen tokiyan etzan, nai nuenian jeiki, nai nuena egiñaz bizi zan batentzat, ¿larogei miĪa duroekin aŕkitzia, zeŕ dan ba aldakizu?
Pantxo *Sueŕtia* egitia.
Txilboŕa Edeŕa.
Pantxo Ik ainbeste aitatze ukan *sueŕtia*, orixe det. ¡A! Orain, Aereo Klu'ra juan inteke, egun guziyan etzanda egotera.
Txilboŕa ¡Edeŕki eman ere! ¿Etzateko betik detala uste al dezu? Banku batetik bestera, onelako gizonengandik beste arakoengana, emen papera aŕtu, bestera eraman, bateko firma, besteko idaztia... ¡A! Ta letŕa edeŕa detala, esan didate...
Pantxo Bazekiat: *Bakalau xaltxak*...
Txilboŕa Bai zera: Bankuko burubak.
Pantxo Ori besterik dek.
Txilboŕa Egun guziyan, eruen gisa ibiĪi batetik bestera, buru guziya nastutzeraño, ta gabian ere, bi edo iru aldiz jeikitzen naiz, paperak ondo goŕdiak ote dauden ikustera. ¡Au ez da bizitzia! ¡*Pŕesiliyuan* daudenak ere, ni baño obeto izango dira! ¡Ta, guziya, larogei miĪa duro kikin oyengatik!

Pantxo Mutil: etzakala oŕelako astokeririk esan. Besterik ez bada, eoŕek ezagutu biaŕ dek, len baño obeto aŕkitzen aizela. Len baño txukunago, gaŕbiyago jantzi...

Txilboŕa ¡Jantziya!... Oraingo aldian, lasayago ibiltzen nitzan nere bŕaka zaŕakin.

Pantxo Osasunareko ere, orain daramakan bizikera askoz egokiyagua dek. Gizarajo oŕek, beste osasunik izango dek orain.

Txilboŕa ¡Zaude ixilik! Nere gisa nebiĺenian, zuk esaten dezun bezela, zikin eta gose, bulebaŕeko alkiyetan edo peŕeran lo egiten nuela, ¿aitu aldezu benere, Txilboŕa'k gaxotasunik izan zuenik? ¡Ez ta agiñeko miñik ere! Orain, beŕiz, jazkera txukun abekin, bizikera egoki onekin... ¡kataŕua! aŕapatu det. ¡Txilboŕa'k kataŕua! ¡Gezuŕa dirudi!

Pantxo Oyek, lengo kŕakak dituk.

Txilboŕa Bai; kŕakak, lenguak izango dira; baña, kataŕua, oraingua da.

Pantxo Lengo ibiĺera txaŕen ondoria dek ori.

Txilboŕa Baliteke... Ibiĺera txaŕetan nebiĺela aŕapatu izan banu, an igaro biaŕko nuben, al nuben bezela; baña larogei miĺa duro dituen gizon bati, nola utzi sendagiĺia etxera ekaŕi gabe...

Pantxo Izan ere, iri peŕatzaĺia ekaŕi biaŕ zitekan.

Txilboŕa Etzan batere txaŕagua izango.—Etoŕi ta lenbiziko lana, mingaña ikusi biaŕ omen zidan. Nik kataŕua mingañian banu bezela. Aŕek, bai, bere jakitia mingañian izango duela.

Pantxo Ik beŕiz, oin mutuŕetan.

Txilboŕa Gero, eŕgel aŕek aŕtu azi zidana... ¡Ez diyot beñere paŕkatuko... zital aŕi!

Pantxo Badakik bada, ezeŕ aŕtu gabe sendatzerik ez dagola.

Txilboŕa Bai, baña... aŕek aŕtu azi zidana...

Pantxo Bestiak ere ala aŕtzen dizkitek: sendagayak, botikak...

Txilboŕa Sendagaya besterik izan ez bazan...

Pantxo ¿Zeŕ aŕtu azi dik ba? ¿Pozoya? ¿Benenua?

Txilboŕa Benenua besterik izan ez bazan...

Pantxo ¿Zeŕ da ba, aŕtu azi dikana?

Pantxo ¿Zeŕ dan? ¡Txokolatia! ¡Txokolatia aŕtu azi dit!... ¡Txilboŕak, txokolatia!... *(Biatzakin, txokolatia aŕtzeko keñua egiñaz).*

Pantxo Oŕen txaŕa badeizkiyok, ez aŕtubakin, kito.

Txilboŕa ¿Ez aŕtu? Esayozu ori, Mikela Ziŕikituni, esayozu.

Pantxo ¿Zeŕgatik, ez?

Txilboŕa ¿Badakizu zein dan, Mikela Ziŕikitun?

Pantxo Nik, ez.

Txilboŕa Donostiyan ez da izango bat, ura ezagutzen ez duenik.

Pantxo Bai, Badek bat: ni.

Txilboŕa Emakume beŕitsu, koipelustŕe, saltza-jariyo, besteren naspiĺetan saŕtziagatik, salduko luke atzeko aldia.

Pantxo Ez dik beste zeŕ saldu aundirik izango oŕduban.

Txilboŕa Lenago, ezagutzen ere ez banindu bezela, ez aguŕ ta ez ariyo, aŕen abua etzan neretzat zabaltzen «mozkoŕ zikiña» deitzeko ez bazan. Larogei miĺa duruen jabe egin naizenetik beŕiz, ezin etxetik bota det.

Pantxo Laguntzaĺe bat badek beaz.

Txilboŕa Edeŕa bera. Nere amaren ezkon-aizpa omen da, nere izeba jatoŕa, berak diyonez; eta bere iĺoba naizen aldetik, ezin utziko omen nau ¡Lenago uzten ninduben ba! ¡Lenago etzan bere iĺobatzaz askoŕik gogoratzen!

Pantxo Eoŕek ere eziokan askorik adieraziko.

Txilboŕa Kataŕuakin gelditu nitzanian, etxiaz jabetu zan eta buruz gain egin zidan. Aŕen agindu biaŕa... oju ta kaŕaxi, etxe guziya aidian zeukan. Bere aŕantzak, bere maŕuak, Ixturin'dik entzungo ziran ¿Txokolatia aŕtu, diyozu? ¡Aŕtu biaŕko! Txokolatia ezezik, katiĺuba ere ez dakit, nola aŕtu azi ez zidan.

Pantxo Iretzako gogo ona, oŕetan erakutsi dik.

Txilboŕa Bai; oŕetan, eta gero belaŕi eŕtzera zipliki ziplika esaten... zera... azkenaya, testamentuba egin biaŕko nubela... Ara... Ez dakit oŕdubantxe, nola Ziŕikituna bi puska egin ez nuben.

Pantxo Nolanai ere, egin biaŕ dan gauza dek.

Txilboŕa ¿Bi puska?

Pantxo ¡Azken-naya!

Txilboŕa Bai; baña, ori, nik nai detanian. Orain, beintzat, ezeŕtarako betik ez daukat. Larogei miĺa duruak, dominixtiku bat egiteko astirik ez didate-uzten.

Pantxo ¿Ta, izeba dalako óŕi, zeŕ esan iyokan ba?

Txilboŕa ¿Esan? Uxiatu egin nuben, lasteŕ asko, atso soŕgin ura.

Pantxo Ori dek.

Txilboŕa Baña, alpeŕik. Uŕengo egunetako batian an etoŕi zitzaidan, neska faŕdel batekin: oŕtz ustel, katu begi, xima jariyo... bere iĺoba omen du. Izeba ziŕikituna bada, iĺoba geyenaz ere estaniña izango da. Uraxe omen da neretzako andŕegai polita.

Pantxo A! Elitzaikek bat gaizki etoŕiko.

Txilboŕa ¿Andŕegaya? Andŕegaya baño óbe nuke nik oĺo salda berua.

Pantxo Baña, oĺo salda berotzeko, emazte bat biaŕekua dek.

Txilboŕa Emaztiak, ez dakit berotu, baña, oĺo salda aŕtu, bai, egingo luke lasai asko nere bizkaŕ. Lenago, etzidan neri iñoŕk, andregairik eskeintzen; eta, orain, andŕegayak, izebak, guzitatik eman nai didate. ¡Zeŕ soŕgin nasteboŕaste da au!

Pantxo Zeŕ izango dek... Esan diat, ba. Ori dek; *sueŕtia*.

Txilboŕa Bai; *sueŕtia* legoŕez. Nik, len, ez nuen aiderik, ez nuen parienterik, mendiyan zizak bezela, bakaŕa nitzan; eta, orain, eltxua bezela, baztar guzietatik ito biaŕ nautela soŕtzen zaizkit.

Pantxo Lenago ere oŕ izango itukan, baña, ¿noŕk iri begiratu oŕduban?

Txilboŕa Begiratzen didate bada orain: begiratu, jaŕaitu ta jan egingo naute. Mikela Ziŕikitun'ek une batian ez nau uzten. Leyua irikitzen badet, auŕeko etxekuak, eta aldamenekuak, danak aguŕka asten zaizkit lengusuak dirala esanaz...

Pantxo Ala izango ditut eta.

Txilboŕa Kalian banua, emengo nezka aŕaisaltzaĪia, otaŕa utzi ta etoŕiko zait iĪoba dala esanaz, ango ogi banakatzaĪia izeba dala, besteko agure baldaŕa osaba, kale-gaŕbitzaĪe gaztiyak lengusu egin zaizkit...

Pantxo Ez ago gaizki.

Txilboŕa Lenguan, Ikatz-kalian nijuala, ume mukizu piĪa bat atera zitzaidan ¡osaba! ojuka. ¡Eltxuak bezela, eltxuak bezela! Azkenian, atzo, zelaore kankaĪu bat bada, belaŕi bat bestia baño luziago dubena. Lenago bi bideŕ eraman ninduben Bulebaŕeko alkiyetatik peŕera'ra. Oŕduban ez ninduben ezagutzen. Bada, atzo, etoŕi ta eskua txapelian onela jaŕiyaz, xamuŕki xamuŕki esan zidan: aitzia, izango nuela, ura ere aidietakua zala... ¡Larogei miĪa aide soŕtu zaizkit neri!

Pantxo Ori dek alde guzietatik *sueŕtia*.

Txilboŕa Baña, entzungo dezu alakoren batian, aide guztiyak aidian bialdu ditutala. ¡Aidian, gero!

Pantxo Oŕenbeste bialtzeko, besoetan indaŕ puska bat ere biaŕ•o dek.

Txilboŕa Besuetan, ez; oin mutuŕetan biaŕ det nik indaŕa.

Pantxo Nunbait beintzat, bai.

Txilboŕa Gero, aidiak utzi itzazu alde batera; Donostiyan diran alpŕoja txaŕ guztiyak ondotik ditut beŕiz.

Pantxo A! Ire lengo aizkidiak, ire lengo lagun kutunak.

Txilboŕa Lokatza ta zikiña dariyotela, bizkaŕetik zintzilik jaŕtzen zaizkit, soñeko guziyak koipez betetzen dizkidatela; beren usai zikiñarekin txorabiatzen nautela; ta, ¡kaxo lagun zaŕa! batek, ¡eup, Txilboŕa! bestiak, maŕuskatzen naute legamiya bezela.

Pantxo Oŕek esan nai dik, itzaz ez dirala aztu.

Txilboŕa Nayago nuke ba aztuko balira. Ta, guztiyak, eskapen bera egiten didate.

Pantxo Bazekiat: boxt pextako bat.

Txilboŕa Asmatu dezu. Alaxen da.

Pantxo ¿Geyago eskatuko lutekela uste al dek? ¡Edeŕki emanere!

Txilboŕa Edeŕki eman ez dakit; baña, nik eman ezkero edeŕki aŕtuko lutekela, bai; ori badakit.
Pantxo ¿Zeŕ dek ba, boxt pextako bat?
Txilboŕa ¿Zeŕ dan? Alpeŕ ayek irabazten ez dakiten diruba.
Pantxo Nolanai ere, ayek ez dutena.
Txilboŕa Ayek ez dutena, badakit nik zeŕ dan: lotsen apuŕik ez dute ayek.
Pantxo Jateko ez badezute, ¿zeŕtarako ditek lotsa?
Txilboŕa Jateko ez dutela... alpeŕontzi batzukek diralako.
Pantxo ¿Ta zeŕ? ¿Alpeŕontziyak ez al ditek bizi biaŕ bestiak bezela?
Txilboŕa Ez, jauna: aŕlote zaŕpail oyek ez luteke bizi biar ere.
Pantxo ¡Ibezelako aberatzak bakaŕik bizi biaŕko ditek emen!
Txilboŕa Ziŕtzil likixkeri oyek ez beintzat.
Pantxo Oŕduban, alpeŕontziyak dirala ta, zakuŕen antzera eraman, Amara'ko etxolan gaŕbitu ditzaten.
Txilbora Batzuek batzuek gaŕbitzia, ez litzake batere kalteik izango.
Pantxo ¿Alpeŕontziyak, beste edozein aña ez al dituk ba?
Txilboŕa Bestiena zuŕupatzeko, bai. Bes'ien bizkaŕ zaunk eta zuŕut egiteko ere bai. Oŕetarako, bai.
Pantxo Ez badute, ¿zeŕ egingo ditek ba?
Txilboŕa ¿Zeŕ egingo duten? Lana egin dezatela.
Pantxo ¿Lana? Aberatzak egin biaŕ ditek lana.
Txilboŕa Egin azitzen didate neri naikua.
Pantxo Ezeŕ ez badute, zeŕ galdurik ez badaukate.., ¿zeŕtarako lan egin biaŕ ditek? ¡Zeŕ galdua dutenak, lan egin dezatela!
Txilboŕa (Pixka batian Pantxo'ri begira egon ondoren). Ta... ¿zuk diozu ori?
Pantxo Bai; nik ori esan diat.
Txilboŕa Bai, baña, ez da zure baratzako letxuba.
Pantxo Ez; ire baratzako tipula dek.
Txilboŕa ¿Neria?
Pantxo Ik len esaten ukana. Iri entzuna diat nik.
Txilboŕa Gauza geyago ere entzungo zizkiatzun neri baña...
Pantxo Bai; Donostiyan badagola gauza ta, gauza dan bitaŕtian, guztiyak alkaŕ aŕtuta pakian bizi biaŕ genukela...
Txilboŕa ¿Zaŕpazaŕ oyekin? Ez pakian eta ez gudan.
Pantxo Ik, orain, badek gauza, ta, gauza dan ezkero, dubenak ez dubenari emanaz...
Txilboŕa ¿Zeŕ; nere diruak aŕlote oyek mantentzeko ditudala uste dezu? ¡Orixe biaŕ genuke orain! ¡Oŕetarakoxe nabil ni buru ta belaŕi; mozkoŕ, likixkeri oyen zintzuŕak asetzeko!
Pantxo Mutil: eoŕek len esaten ukana, esan diat.
Txilboŕa Len... len... ¡Orain ez dago lengo konturik!

Pantxo Ori dek. Esantzak ik ere, bestiak bezela, bost urtian gauzak, goikuaz bera biurtu dirala.

Txilboŕa Biurtu diran bezela.

Pantxo I beintzat, bai, biurtu aiz.

Txilboŕa Bai, noski. Nik, lenago, ez nuben ezertan oldozten, ni ez nitzan ezertzaz gogoratzen, nik, buruan, ez nuen ezer eukitzen...

Pantxo Sabelian ere ez askotan.

Txilboŕa Orain ditut nik, katŕamila abek guziyak.

Pantxo Bai: i len, orain eta beti, kaiku bat izan, gizarajo ori.

Txilboŕa Diruik ez nubenian ez neukan ezertarako lan egin biarik. Dirua artu detanetik lanian asi biar izan det. Nere anai txatxubaren larogei mila duruak lan egitera biartu azi naute.

Pantxo Anai txatxua... ¡Anai onegiya!

Txilboŕa Egun guziyan zoratzen, asnas artzeko betik gabe; beti buruan nere paperak e ta nere dirubak ditutala, beti zalantzan, beti kezketan; gabian ere ezin lo egiñik, ametsetan ere nere ontasunekin...

Pantxo Esnatuta ere ametsetan abilela uste diat.

Txilboŕa Eta gero, alproja txar oyek guziyak nere ondotik, beren betiko eskapen nardagariyakin; aidiak beste aldetik, ¡iloba! ¡osaba! ¡lenguxu!, deadar egiten didatela; andŕegayak, Mikela Zirikitun, testamentuba, katarua, sendagilia, txokolatia... ¿Au alda bizikera? Ta, guziya, larogei mila duro zikin oyen gatik.

Pantxo Mutil, kanpuaz aldatu aiz; baña, baruaz, len bezin kirtena agola ikusten diat.

Txilboŕa Ni, diru tartian sartuta erotu egingo naiz.

Pantxo Erotu, ez; izatekotan erdoitu.

Txilboŕa ¿Nola?

Pantxo Diruak ez dik egiten erdoya besterik eta.

Txilboŕa Bai: erdoya ta buruko miña.

Pantxo Len baño gauza bat geyago.

Txilboŕa Nere gaizkieza, nere zorigaitza, nere ezin biziya, diru orek ekari dit. Nere anai txatxubak erezago egin zituben larogei mila duruak, nik emen zuzendu ta gordeko ditudan baño.

Pantxo Kirtenkeriyan, urtetik urtera aurerago uala ikusten diat.

Txilboŕa ¿Ez al det ba ondo esaten? *(Asare antzian eta geroago ta biziyago).*

Pantxo Ik, ondo: ez esan eta ez egin.

Txilboŕa Bai; zuk, beti, zer esana badezu.

Pantxo Nik, beti, egiya esaten diat.

Txilboŕa Ni, beste aundiki oyetako bat banitz, etzenuke orelakorik esango.

Pantxo Andikiyai ta txerikiyai, nik, beti, gauza bat esaten ziuatet; eta gauza ori dek...

BOSTGAŔEN AGEŔALDIA

V

Lenguak eta Axun

(Axun atzeko atian ageŕtzen da).

Axun Pantxo: Damasa, gure neskame izandua, bere senaŕarekin etoŕi da.
Pantxo ¿Ta, onera ekaŕi biaŕ aldituzu?
Axun Noski.
Pantxo Oraintxe... *(Pixka bat oldoztu ondoren, Txilboŕa'ri).* (1). Saŕtu adi emen. *(Ezkeŕeko atian).* ta itxogon zak.
Txilboŕa ¿Emen saŕtu biaŕ al da?
Pantxo Bai.
Txilboŕa Ori ere egingo degu bada. Oŕtan ez dezu zeŕ esanik izango.
Pantxo Ta, egon adi, nik deitu aŕte.
Txilboŕa Nai dezun aŕte.
Pantxo Bitartian zeŕ bait aŕtu nai badet...
Txilboŕa Eskeŕikasko.
Pantxo Nai badek, ekaŕiko diagu... txokolatia.
Txilboŕa ¡Ez, ori ez! ¡Lenago zimauŕa!
Pantxo Ago bada oŕ. *(Txilboŕa ezkeŕeko atetik juaten da, ta Pantxo'k atia itxitzen du).*
Axun Orain daukan itxurarekin, ez da noski ezeŕ aŕtzeko zalerik izango.
Pantxo Orain, onenian, zeŕbait zaletasun izan lezake... Bañan, emen ezeŕ aŕtzeko añakorik ez.
Axun ¿Zeŕ da? ¿Etxesariak igotzen egin al du dirua oŕek ere?
Pantxo ¿Oŕek dirua egin? Ezeŕtan ez. Oŕi dirua sakelian saŕtu, egin diote; ta, alare, oŕ dabil maŕumaka.
Axun ¿Zeŕ bada?
Pantxo Juxto gizarajua il da; ta, bere ontasun guziyak kiŕten oŕi utzi dizkio.
Axun ¿Il al da, zuk ainbeste maite zenuen laguna?
Pantxo Bai: nere lagun zaŕa.
Axun Oŕa beaz... Bada, esan bezela, Damasa, gure neskame izandua etoŕi da...
Pantxo Bai; baña zaude pixka batian berakin.
Axun ¿Etoŕiko zera oŕdia?
Pantxo Berialaxe emen natzaizute.
Axun Lasteŕ ibiĩli bada.
Pantxo Bai, bai. *(Eskuiko atetik juaten da).*

(1) Eskeŕetik eskuira: Txilboŕa, Pantxo, Axun.

SEIGARREN AGERALDIA

VI

Axun, Damasu ta Patrixio

Abei Terex'ek laguntzen die

Axun *(Atzeko atetik deika).* ¡Aurera, aurera! *(Damasa ta Patrixio atzeko atian azaltzen dira. Terex'ek ateraño lagunduko diye, ta gero alde egingo du. Senar emaztiak oso aldatuak agertzen dira. Patrixio, lengo apaltasunaren ordez, arokeriz betia. Itxura ta jantziya ere, oso apañak. Maskorezko betaurekoak begietan, illia azkeneko erara oraztua, jantzia ere ikusgaria, ta txamararen begian lore mamaru bat. Lengo ordez orain, Patrixio'k agintzen du. Damasa oso eroriya agertzen da. Jantziya ere berdin dauka; ta azaltzen danetik antsika dago. Lenbizizo itzak erdi negarez egiten ditu).*

Damasa ¡Etxekoandria!

Axun (1) *(Pixka batian begiratu ondoren, eta ain negarti ikusitakuan).* ¿Zer da? ¿Xexenak al ditugu?

Damasa Bai, etxekoandria: Laxturkuak.

Axun *(Damasa'ri ixilik).* Esaten nizun nik, Laxtur'kuak kontuzkuak zirala.

Damasa Baña, au zan mantxuarekin...

Axun Bai zuk uste. *(Patrixio'ri esku emanaz).* Eta zuk, ¿zer diozu?

Patrixio Ondo, ta beori?

Axun Ongi; eskerikasko.

Patrixio ¿Ta, beoren senar jauna?

Axun Txit ondo; laster etoriko da.

Patrixio ¿Eta beoren...?

Damasa *(Patrixio'ri, zuzenduaz).* Besterik etzala, len ere esan nizun.

Patrixio Ordutik onera, saski bat bete izan zezatekien. *(Axun'i).* ¿Etxeko guztiyak ondo beaz?

Axun Bai, Jaungoikoari eskerak. Atozte aurera, atozte. *(Aureratzen dira, ta Axun alki-luzian esertzen da).* Eseri zaitezte. *(Patrixio'k alki bat ematen dio Damasa'ri, berak artzen du beste bat eta biyok esertzen dira.*

Patrixio Eseri zaite.

Axun ¿Ez al dezute emen eseri nai?

Patrixio Eskerikasko. *(Ixil aldia).*

Damasa ¡A! *(Damasa'k antzi bat egiten du, ta Patrixio belaun bat bestien gañian jartzen du).* ¿Amerika aldian ondo, e?

Axun Oso ederki. ¿Ta zuek emen?

---

(1) Ezkerretik eskuira: Patrixio, Damasa, Axun.

Damasa Oso gaizki, etxekoandŕia, oso gaizki. —¡A! *(Damasa'k antsi bat egiten du, ta Patŕixio'k belauna batetik bestera aldatzen du).*

Patŕixio Onen esakerak...

Axun ¿Zeŕ izan dezute bada?

Damasa ¡Ain edeŕki bizi giñanak!

Patŕixio Bai. Ostiraletik igandera ezin iritxirik.

Damasa Et zazula oŕelakorik esan, Jainkuak zigoŕtzeko ere.

Patŕixio Oliyo tantuak banaka kontatuaz, tipula puntak biatzakin neuŕtuaz, barutxuri aliak lauŕdenduaz, poŕupeŕejil puxkak...

Damasa Bañan, Patŕixio...

Axun Len, oŕengatik goraltzen zenuen zure emaztia. Dirua luzatzen zuela bera bezela ta...

Damasa ¡A! *(Damasa'k antsi bat egiten du, ta Patŕixio belauna batetik bestera aldatzen du).*

Patŕixio Orain ez degu luzatu biaŕik oŕdia. Orain ez dago lengo konturik. Lukainka baño luziagoko diru pīlokak ekaŕtzen dizkiot nik orain.

Damasa Oŕek ondatu gaitu bada.

Axun ¿Diruak?

Damasa Bai, bada.

Patŕixio Onen esakerak.

Axun ¿Nola, oŕdia?

Damasa Ara, etxekoandŕia: Gure lau kuaŕtuai begiratuaz, xuŕ-xuŕ, zorionez beterik bizi giñan. Baña, ontan geŕtatu da, diru-papeŕ batzuek bagenituela, utza baño gutxi geyago ematen zigutenak. Beoŕek ezagutuko ditu noski. Ez dakit nola deitzen dioten ere: Jaxintak edo... Jabierak edo...

Axun ¿Jabierak?

Patŕixio Nabierak.

Axun ¡A! ¡Nabierak!

Damasa Bai; oŕelako zeŕbait izan biaŕ dute.

Axun Nabierak diru asko eman duten garaya izan da.

Patŕixio Garai oŕetaz baliatu gera bada.

Damasa Ta, ori izan da gure ondamena.

Axun ¿Nola, oŕdia?

Patŕixio Ara, etxekoandŕia: papeŕ oyek, dirua eŕuz eman digute.

Patŕixio Zorapen bat izan da.

Damasa Ta zorapen ori izan da nere gizon puntarentzat, xexenentzat banderīlak saŕtzia bezela.

Axun Laxtuŕ'kua izan nonbait.

Damasa Gabetik goizera, gizona oso aŕotu zait, iñon ezin gelditu dala, ta bere onetatik atera da.

Patŕixio ¡Zorionaren alaitasun jatoŕa!

Damasa ¡Zoritxaŕaren ageŕpen negaŕgaŕia! ¡A! *(Damasa'k antsi egitean Patŕixio'k belaunez aldatzen du).*

Patŕixio Zure esakerak...

Damasa Gero, bere antzeko peŕatxiku bat ageŕtu zitzaigun, eta biyak, jo batera, ta jo bestera, gabian gabeŕdi oŕ ibiĺi dira, txoriburu zaŕpail batzuek beren buruak egiñik.

Patŕixio Dirua genuen ezkero, ¿zeŕgatik gozaŕtu biaŕ ez genuen?

Damasa ĺtxura edeŕian. Etxeratzeko oŕdu nabaŕmen ayek ikusirik, galdetzen niyon: ¿bañan, nongo toki madarikatuetan izaten zerate? Ta erantzuten zidan: ¡tanboliñian! ¡Tanboliñian izaten zirala!

Axun ¿Tanboliñian? ¿Eta oŕdu oyetan?

Damasa Ez, etxekoandŕia, ez, etziran tanboliñian. ¡Zorigaiztoko tabariñian ziran! ¡Tabariñian!

Axun Ala biaŕko.

Patŕixio Ez dakit zeŕ dala uste duen onek, tabariña.

Damasa Biaŕ bezelako gizon ezkonduak juan biaŕ ez duten tokia.

Patŕixio Makiñabat gizon ezkondu ikusten ditut ba nik an.

Axun Biaŕ bezelakuak ez dira izango oŕduan.

Damasa Ez, noski.

Patŕixio ¿Beoŕek ere ala uste al du?

Axun Nik, eta bi biatzeko kopeta duen guziyak. Toki oyek dira, sendietara, familiyetara, zoritxaŕa ta ondamena ekaŕtzen dutenak.

Damasa ¡A! *(Damasa'k antsi egitean Patŕixio'k belaunez aldatzen du).* Bai, etxekoandŕia, bai. Gure etxeko zoritxaŕa ta ondamena oŕtik etoŕi da beintzat.

Patŕixio Baña, emakumia: zentzuz itzegin zazu. ¿Nai dezuna jan eta edan, zure eskuetan ez daukazu? ¿Nai dezun bezela jantzi ta apaindu, zure gain ez dago? ¿Nai dezun tokietara, nai dezun eran juan ez zintezke? ¿Nai dezun guziya, egin etzenezake? ¿Nai dezun dirua, oparo ematen ez dizut? ¿Zeŕ geyago biaŕ dezu?

Damasa ¡Nere senaŕa biaŕ det nik! ¡Nere senaŕa!

Axun Edeŕki esana. Oŕtarako ezkondu ziñan.

Patŕixio *(Ao pean)* Senaŕa, emen daukazu ba.

Axun Gogora zaitia, nola aukeratu zenuen.

Damasa Iruen aŕtian.

Patŕixio Bai: Rupeŕta, Noŕbeŕta, Damasa.

Axun Ta Damasa'rekin gelditu.

Patŕixio Ala da. Oŕduan, nik, nere diru pixkak luzatuko zituena biaŕ nuen; orain, beŕik, nere ontasun ugariak zabalduko dituena.

Damasa Zu, ta zure lagun peŕatxiko ori etzaudete txaŕak oŕetarako. Oraingo itxuraz, zabalduko dituzutela iduritzen zait.
Patŕixio Zeoŕek ere, pixka bat zabaldu egin biaŕ zenuke...
Damasa ¿Zabaldu?
Patŕixio Lasaitu...
Damasa ¡A, ez! Ni, beti, aŕtu ninduzun bezelakua izango nazu.
Axun Ez dezazula zure emaztia lasaitzerik, zabaltzerik nai. Lasteŕ zeoŕi ere laŕituko ziñake, estutuko ziñake.
Patŕixio Ez bezala uste.
Axun Emaztia zabaldu. senaŕa estutu.
Damasa Bai, etxekoandŕia, bai; oni ere mokua txoŕoxtuko litzayoke. (*Patxi erantzutera dijua, baña Damasa'k antsi bat egiten du, ta Patŕixio'k belaunaz aldatu, ta ixilik gelditzen da).* ¡A!

ZAZPIGAŔEN AGEŔALDIA

VII

Lenguak eta Pantxo

(Pantxo eskuitik saŕtzen da).

Pantxo ¿Emen zerate beaz?
Damasa Nagusiya... *(Damasa ta Patŕixio altxatzen dira).*
Pantxo ¿Nola, zerate?
Damasa Zeŕ esango degu...
Pantxo ¿Ta, zure senaŕa?... Itxoin; bere izenaz gogoratzen naizela uste det... Maurixio.
Damasa ¿Mau?... Ez, jauna; pa...
Pantxo ¿Pa...?
Axun Pa...
Patŕixio (Musuka asi biaŕ ote dute).
Axun Patŕixio...
Pantxo ¡A, bai! ¡Patŕixio! (1). *(Patŕixio'ri esku emanaz)* ¿Zeŕ diozu?
Patŕixio Ondo; ta beoŕi?
Pantxo Ondo.
Patŕixio Ta... *(Axun'i begiratu bat egin ondoren).* ¿Etxeko guztiyak ondo beaz?
Pantxo Oso edeŕki. Eseri zaite.
Patŕixio Eskeŕikasko. *(Patŕixio eseŕtzen da).*
Damasa Ta, nagusiya: ¿itxasuak aŕokeririk ageŕtu al diote?

(1) Ezkeŕetik eskuira: Pantxo, Patŕixio, Damasa, Axun.

Pantxo ¡A, bai! Asaŕe ikaragaŕia egun batzuetan ageŕtu zigun. Zutzaz asko oroitu nitzan.

Damasa Oŕa beaz...

Pantxo Zerian zan: Bŕasil'go itxaseŕtzian. Santa Katalina deitzen dioten itxas-kolkuan. Oŕdu aŕte itxasoa, zelai zabal patxarako bat zirudiela, oso bare geneukan. Bañan, batetan, aŕotzen asi zan, ta, baga ikaragaŕiak, mendi muño kolokak ziruditela, gure buru gañean, zeruetaraño igotzen ziran, beren eŕaietan klaskatu biaŕ bagindute bezela. Nere biziyan ez diot ikusi itxasoari, alako aŕokeririk.

Damasa Nagusiya: itxasoa ezkonduba da.

Pantxo ¿E?

Damasa Ez da ezkongaya, beoŕek ziyon bezela.

Pantxo ¿Zeŕgatik, oŕdia?

Damasa Ezkongayen aŕokeriyak motelaguak dira. Ezkondubak dituzte oŕelako aŕokeri ikaragaŕiyak.

Pantxo ¿Nondik atera dezu, iritzi beŕi ori?

Damasa ¡A! Ni ere iritxi naiz Santa Katalina'ko... oŕetara; ta, nere senaŕak erakutsi dit, ezkonduen aŕokeriak nolakuak diran.

Patŕixio Onen esakerak....

Damasa Bai, nagusiya, bai. Ni ere izandu naiz... ¿Santa Katalina'ko, zeŕ esan du?

Pantxo Santa Katalinak'o itxas-kolkoa.

Damasa ¡A! Bai, jauna.

Pantxo Gaztelaŕak *golfo* deitzen diotena.

Damasa Ori. Ori. Esan dídatenez, nere senaŕa orixe omen da: gaztelaŕak *golfo* deitzen dutena.

Patŕixio *(Oso asaŕe altxatuaz).* ¿Noŕk esan du ori?

Damasa Bostgaŕen bizitzako zapatagiĺe begi bakaŕak.

Patŕixio Beste begiya uztuko diyot nik, petŕal, lotsagabe oŕi.

Axun Tira, tira; ez oŕela asaŕetu.

Pantxo *(Patŕixio'ri).* Eseri zaite. *(Patŕixio eseŕtzenda).*

Damasa ¡A! *(Damasa'k antsi egitean Patŕixio'k belaun bat bestien gañian jartzen du).*

Pantxo Zure esaerak oso aŕiturik utzi naute.

Axun Ez da gutxiyagotako.

Damasa Guziya baleki...

Pantxo Orain bost uŕte, toki ontan beŕtan, zorionez beterik ikusi zinduztedan.

Damasa ¡A! *(Damasa'k antsi egitean Patŕixio'k belaunez aldatzen du).*

Axun Alaxen da. Oŕduan esan zigun, nola iru neskatxa alkaŕekin ibiltzen ziran...

Patŕixio Bai, andria: Ruperta, Noŕberta, Damasa.

Axun Damasa'rekin gelditu zala, ta etzitzayola ezkondua damutu, ta ez ta damutuko ere.

Patŕixio Bai, baña; ori zala bost urte badira, ta ludiak bost urtian, zilipurdi aundiak egin ditu.

Pantxo ¿Zuk ere bai?

Patŕixio Nik ere zerbait, bai.

Damasa Onek, zilipurdi ikaragarriyak, nagusiya.

Pantxo Ez nuen ori esan nai. «¿Zuk ere bai?» esan dizut, len ere esan didatelako, bost urtian ludia goikuaz bera biurtu dala. Ta, nik ikusten detana da: len bezela, lura bian dagola, zerua goyen, gizon zintzuak burua gora dabiltela, ta, len bezelaxe, badirala orain ere zoritxareko batzuek, ankaz gora ibili nai dutenak.

Damasa Nere senara, bat.

Pantxo Zure senara, ta zure senara ez diranak ere bai. Ludiak aldaketa aundiya egin du, esaten da; ta ez da egiya: gizonak, gizon batzuek dira aldatu diranak.

Damasa Alaxen da, nagusiya. Egiya esaten du. Ta aldaketik aundiyena egin dutenetako bat, nere gizon xaxpiki au izango da.

Patŕixio (Oso asare altxatuaz). ¡Xaxpikiya! ¡Zazpi mila demoniñok...

Damasa ¡A! *(Damasa'k antsi egitian, Patŕixio'k zutik dagola gogoratu gabe, belaun bat bestien gañian jartzen asten da, ta lurera eroriko ez bada Pantxo'k eltzen dio).*

Pantxo Tira, tira: eseri zaite. *(Damasa'ri).* Zu, ere, eseri zaitia.

Damasa Ai, ez, nagusiya. Eskerikasko. Juan egin biar degu.

Pantxo Gero ere juango zerate.

Axun ¿Norako dezute orelako lariya?

Damasa Beok zer-egin asko izango dute ta...

Axun Ez, emakumia.

Damasa Bai, etxekoandria, bai. Gu, ongi-etori bat egitera bakarik etori gera, ta ez diotegu alperikako lanik eman nai.

Axun *(Altxatuaz).* Nai ez badezute bada, ezin gogorian geldi araziko zaituztegu. *(Labak atzeko ate aldera egiten dute.*

Damasa Ongi-etori ba, etxekoandria; ongi-etori, nagusiya.

Patŕixio Ongi-etori.

Pantxo Eskerikasko.

Axun Ongi arkituak, zuek ere, ta zure senarak, *tanboliñ* oyetara juateko griñak lenbailen utzi ditzala.

Patŕixio Baña...

Axun Ortik, ez dezu gauz onik aterako.

Patŕixio Etxe zuluan sartuta, nere emaztiaren antsiyak entzuten ezin egongo naiz bada. Gero ere, ni, bildotx baño, lenago izango naiz zezen.

Damasa ¿Entzun al du, etxekoandria?
Axun Laxtuŕ'kua izan.
Patŕixio Aguŕ, bada, jaun andriak. *(Patrixio'k atzeko atetik alde egiten du. Bestiak atzian gelditzen dira Damasa juan aŕte).*
Pantxo Zuaz ondo.
Damasa Aguŕ, etxekoandria. Aguŕ, nagusiya.
Axun Ondo ondo izan.
Damasa ¡Al *(Antsi bat egin ondoren, Damasa, atzeko atetik juaten da).*
Axun } Aguŕ.
Pantxo }

ZOŔTZIGAŔEN AGEŔALDIA

VIII

Axun, Patŕixio ta Txilboŕa

Pantxo Beste kaiku oŕekin ere, amaitu biaŕ degu ba oraintxe.
Axun *(Alki-luzian eseriaz).* Gizonaren lerdentasuna.
Pantxo *(Ezkeŕeko atia iriki ta deituaz).* Atoŕ onera.
Txilboŕa *(Ezkeŕeko atetik saŕtuaz).* ¿Nere txanda al da orain?
Pantxo Bai; baña naikua itzegin diagu; ta, orain, gauzari erabaki bat eman biar ziyuagu.
Txilboŕa ¿Erabaki bat?
Pantxo Erabaki bat. Gauza tajutu, zuzendu, biaŕ bezela erabaki biaŕ diagu...
Txilboŕa Ia ba...
Pantxo Ire oraingo gaizkieza, ire zoritxaŕ guziya, anayak utzi dizkikan larogei miĺa duruen gatik dek. ¿Ez da ala?
Txilboŕa Bai. jauna: oŕelaxe da.
Pantxo Bada, gauzak, antolapen eŕexa dik.
Txilboŕa Bota...
Pantxo Ori dek: bota, jauŕtitu, laga, utzi larogei miĺa duruak, noŕk artua izango dek; ta, i, batere txibotik gabe, lengo zorionera biurtuko aiz. *(Ixil aldi labuŕ baten ondoren).*
Txilboŕa ¿Ori guziya, zeoŕek bakaŕik asmatu al dezu?
Pantxo Bakaŕ bakaŕik.
Txilboŕa Ta, ez al dakizu zuk, dirua gizonaren biyotzaz jabetzen danian, kate sendoakin lotuak gelditzen dirala gizonaren men guziak: diruaz bakaŕik asetzen duela, diruarentzako bakaŕik bizi dala. Dirua, gure eskuetara biltzen danian, esku ta beso, goŕputz eta arima, gure izate guzia katiatzen duela, ta lenago bere sayetz-ezuŕ bat emango lukela diru apuŕ bat baño. ¡Dirua utzi! ¡Dirua bota! ¡Eŕexago esan dezu!

Pantxo Zoritxaŕa besterik soŕtzen ez badik...

Txilboŕa Ala izanda ere. Ez danian, dirurik gabe bizi liteke. Ala bizi nitzan ni, ta diru zalerik ez nuen. Baña, orain, eskuetara etoŕi zaidanian, dirua utzi... ¿Nai ta ere utzi nezakela uste dezu? ¡Lenago biziya! Ez utzi, ez; ez gutxitu ere; al banu geitu egingo nuke. Gañezko geldi-tzen zaizkidanak goŕdiaz...

Axun *(Altxiaz).* Gañezko oyek, zuriak ez dira oŕdia.

Pantxo Utzi zayozu...

Txilboŕa Nere buruari zeŕbait neke emanaz... beste asmorik ez darabilkit, ez det beste ametsik; ia nere auŕerapenakin, larogei miĺa duruak, larogei ta amaŕ miĺara igo arazitzen ote ditudan.

Pantxo Diru auŕeratu oyek oŕdia, batere ez dutenenak dituk.

Axun Gañezkuak beŕiz, zeŕ janik ez dutenenak.

Pantxo Txiroak beren zatia biaŕ ditek.

Axun Ta, onian ez bada, txaŕian aŕtuko dute.

Txilboŕa ¿Nere dirutik? Estiak aterako niozkake ausaŕtzen litzakenari.

Pantxo Ez ukan len ori esaten.

Txilboŕa Oŕetarakoxe aberatz izatera iritxi naiz.

Pantxo Aberatz... Dirua duen guziya, ez, dek aberatza.

Axun Aberatz izaten ere jakin egin biaŕ da.

Pantxo Ludiko ontasun guziak, Jaungoikoaren esku-zabalak gizonaren men-pean izateko soŕtuak dituk; baña, i bezelako zoritxaŕ batzuek, berak dituk ontasunen menpean jaŕtzen diranak. Diruaren nagusi izan biaŕian, diruaren moŕoi egiten zerate, ta oŕtik zuen zorigaitza.

Txilboŕa Nola naiere, diruen gatik.

Pantxo Ez. Dirua berez ez dek txaŕa ¡A! Egitazko aberatz izaten dakiyenak, diruaren nagusi jatoŕ dagonak... ¡Zenbat malko txukatu lezaizkien, zenbat atsekabe gozotu, zenbat alditxaŕ leundu! Ta lagun uŕkoaren ona egiñaz, bere biotzarentzat zeŕ poz eta atsegiñak bildu lezaizkien. Aberatzak ez dituk kaltegaŕiak, baña, bai, aberatz izaten ez dakiten diru jabeak. I: bat.

Txilboŕa ¿Ni?

Pantxo Bai, i. Ta ire antzeko emen izan diran beste batzuek ere bai.

Axun Ez dira gauŕ etxe ontan aldaketa txikiyak ikusi.

Pantxo Ta aldaketa oyek guziyak... **¡Bost Urtian!**

EZKUTA-ZAPIA JEISTEN DA

AMAYA

Geben
E 05
1 - 20m
9881
31

1,50 PTAS.